

EUSKARALDIA

Eginen dugu?

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskaraz hitz egiteko erronka mahai gainean / 2-3

Iturri Eder eta Udaletxe aurrean oinezkoendako guneak egiteko lanak hastear Etxarrin / 5

Parte-hartze aurrekontuak Altsasun: 20.000 euro zertara bideratuko dira? / 9

Etorkizuna dantza eskolak 25 urte: bere ibilbidea jasotzen duen erakusketa zabalik dago lortian / 19

Nafarroako Kirol Jokoak igandean hasiko dira Etxarrin. Andra Mari eta Iñigo Aritza lanera / 13

Sakanako Pilota Proiektua martxan dago, gure eskualdean euskal pilota sustatzeko / 13



Apaindu zure txokoa

**Eraikuntza eta etxebizitza
GEHIGARRIA**

Martxoak 23

Eskatu zure iragarkia **martxoaren 9a baino lehen**
publi@guaixe.eus • 948 564 275 • publizitatea@guaixe.eus



Sakanako makina bat herrietatik joan ziren Euskaraldiaren aurkezpena.

SAKANA

Euskalgintzan aspaldi kezka dago. Herrigintzatik eta administrazioetatik euskararen alde lan egiten dutenek partekatzen dute kezka: euskararen jakintza asko handitu bada ere, erabilera ez da hazi. Eta, larriagoa dena, herri euskaldunenetan, euskararen arnaguneetan, erabilerak behera egin du.

Halako egoera baten aurrean euskarak aurrerako bulkada bat behar duela sinistuta sortu da Euskaraldia (www.euskaraldia.eus), Euskarak 365 egun ekimenaren barruan. 31 erakundek sustatu dute ekimena. Tartean dira Iparraldeko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako administrazioak eta euskalgintzako erakunde ugari ere. Haien guztien eta euskal herriarren erantzukizun partekatua bidez, denen artean euskarari hauspoa eman nahi zaio.

11 egun euskaraz

Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik. Josean Artze poetaren aipua da aurreko hori. Eta Euskaraldiak horiei erreparatzen

Euskaraldia, eginen dugu?

Euskarak aurrera egiteko, hizkuntza ohiturak aldatu eta gehiago hitz egiteko, horretarako ari dira Euskaraldia antolatzen. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskaraz hitz egiteko erronka da. Parte hartu nahi duten herriek izena emateko garaia da

die. Haien hizkuntza ohiturak aldatzera eta inertziekin haustera gonbidatzen ditu, behintzat saiatzera. Nola? Ulertzen duenari euskaraz eginez, hark erdaraz erantzun arren. Eta ezezagunei lehen hitza euskaraz egiten diet. Horretarako prest

**EUSKARALDIAN
HERRIEK IZENA
EMATEKO EPEA
APIRILAREN 8AN
DESPEDITUKO DA**

bazaude zu **Ahobizi** bat izanzen zinateke eta horrela identifikatuko lizukeen txapa izanzen zenuke.

Belarriprest da parte hartze-ko beste modua eta txapa hori daraman pertsonak zera esan nahi du: egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzunen dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

Probatutako metodologia

Milaka euskal herritarrek 11 egun horietan eginen dutena oinarri bat du. Aurretik hainbat

herritan probatuta dago. Sakanatik gertuenak Aguraingo eta Lizarrako esperientziak izan dira. Haiek egin bitartean euskararen erabilera asko handitu zen eta ondoren hizkuntzaren erabilera esperientzia izan aurretik baino handiagoa izan zen.

**HERRIETAN, EDO
IBARRETAN,
BATZORDEAK SORTU
ETA PROPOSAMENA
EGOKITUKO DUTE**

Adibidez, Lasarte-Oriako **Ahobizien** arteko euskararen erabilera % 62,4koa zen erronkaren aurretik. Erronka bukatu berri-tan % 83,8ra igo zen. Eta Erronka pasa eta hiru hilabetera % 81,8koa zen.

Euskaraldia, eginen dugu?

Ahalik eta jende gehiena animatu nahi da 11 egun horietan Euskaraldian parte hartzera. Ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi da. Horretarako, ekimenaren aurkezpenak antolatu dira. Astelehenean Sakanakoa egin zen. Euskaltzaleen Topaguneko Larraitx Lazkano Amadozek azaldu zuenez, Euskaraldia behar bezala prestatzeko, lehen lehenik herriek izena eman behar dute. Sakanako 15 udalerrietatik, oraingoz bakarrak eman du izena, Arbizuk. Apirilaren 8an despeditzen da herriek izena emateko epea. Web orrian eman daiteke izena.

Zeinek bulkatu dezake Euskaraldia herrian?

Euskararen aldeko ekimena bere herrian egitea interesa duten euskaltzaleen elkarteko kideek, udaleko euskara zerbitzuek,

 EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com 948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea		Etxe pasiboetarako egokia 5 9000 Isolamendu nukleo indartsua IKD	Beirak lehorrean jarrita STV Aparteko azala koloreztatua aparteko
---	--	---	--	---



Larraitx Amadoz Lazkano Euskaltzaleen Topaguneko kideak eman zituen Euskaraldiaren inguruko azalpenak.

euskaltegiek, ikastetxeek, guraso elkarteek, kultur elkarteek, norbanako euskaltzaleek... aukera dute Euskaraldia sustatzeko. Gogoia duten guztiak bildu eta martxan jartzeko lehen urratsak elkarrekin ematea proposatu zuen Amadozek.

Aldi berean gomendatu zuen herrian, auzoan, ibarrean, lantegian edo edozein tokitan Euskaraldiaren aurkezpena egiteko eta gero hura antolatzekeo batzorde bat sortzea komeni dela esan zuen. Bertan, tokiko euskalgintzako eragileak elkarlanean aritzeko. Amadozek nabarmendu zuen lehen lana "Euskaraldiaren proposamen orokorra aztertu eta herrira egokitzea izan liteke lehen pausoa. Herriko kronograma eta abendura bitarteko urratsak definitu beharko lituzke batzordeak". Herri guztiak berdinak ez direnez, "herri txikien kasuan, interesgarria izan liteke eskualde gisa aritzea eta indarrak batzea. Egokien iruditzen dena". Egiteko moduei eta prozesuei garrantzia eman diete sustatzaileek.

Funtzioak

Batzordea sortu ondoren, Euskaraldiarekin bat egitea erabakitzen duzuen eman daiteke izena www.euskaraldia.eus web orrian. Berori tresna garrantzitsua izanen da ekimenaren presaketan. Haren bidez zalantzak argitu eta prestatzeko, komunikazio plana egiteko eta kudeaketa orokorrerako baliabideak

eta gomendioak emateko tresna izanen baita.

Euskara Zerbitzuetako, euskalgintzako eta beste entitateetako (enpresak, kirol taldeak, kultur elkarteak, guraso elkarteak eta abar) ordezkariak egonen dira batzordean eta hiru egiteko izanen dituzte. Lehenik, ekimenaren berri zabaltzea bere inguruan. Bigarrenik, ingurukoak aktibatzea **ahobizi** eta **belarriprest** izan daitezen. Eta, azkenik, hizkuntza praktika horiek posible izan daitezen, babes neurri berriak hartzea.

Helburuak

Babes sozial handia behar duen ekimen kolektibo horrekin guztiarekin lortu nahi da euskaldunek euskara gehiago erabiltzeko pausoak ematea. Horrekin batera, tokian tokiko euskalgintza aktibatu nahi da. Aldi berean, entitateek euskaraz aritzeko neurriak har dezaten sustatu nahi da. Eta, azkenik, 11 egunetan hartzun artean sortutako dinamika Euskaraldiaren ondoren mantentzea, hau da, jendeak euskaraz hitz egiten hizketatzeko ohiturari eustea; esperientzia errepikatzea.

EUSKARALDIRA ITXARON GABE, EDOZEIN HASI DAITEKE AHOBIZI EDO BELARRIPREST IZATEN

UEMAren Euskaraldiko proposamena

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Euskaraldian parte hartzeko proposamena aurkeztu du. 11 egun euskaraz egiteko ekimenen tamaina, lurralde eta egoera soziolinguistiko desberdinetako herriak ari dira. Horietako batzuk izanen dira UEMAn elkartzen diren herriak, zeinetan herritarren % 70k baino gehiagok dakien euskaraz. Mankomunitate horretako kide dira Arbizu eta Etxarri Arantz.

UEMAk "Hamaika egun baino hamaika aldiz gehiago!" proposamena aurkeztu du herri euskaldunetan Euskaraldia martxan jarri eta ekimen osagarriak gehitzeko. Euskaraldiak proposatzen duen 11 egunetako ariketa sozialaz aparte, herri euskaldunetan hamaika arlotan euskararen erabilera handitzeko proposamen praktikoak jaso ditu. UEMako arduradunek azaldu dutenez, euskararen erabilera ohikoa den herrietan ere, badaude euskara gutxiago erabiltzen diren esparru eta funtzioak. Eta Euskaraldian horietan eragin nahi dute.

Hamaika egun, hamaika alor Euskaraldiak iraungo duen 11 egunetan euskararen erabilera areagotzeko 11 alor lantzea



Arbizuk dagoeneko izena eman du Euskaraldian. ARTXIBOA

proposatu die UEMAK bere kide diren udalerriei. Alor horietako bakoitzean hausnarketa bultzatu, hutsuneak bistaratu, jokaera eredugarriak nabarmendu eta maila pertsonal zein kolektiboan konpromisoak lantzea da proposamenean jasotzen dena.

Honako 11 arloak lantzea proposatzen da UEMAn txostenean: hedabideak; Internet, sare sozialak, telefona, ...; lantokia edo ikastetxea, aisialdia; kalea, parkea, plaza, frontoia, ...; zerbitzuak: merkataritza, ostalaritza eta gainerakoak; hornitzaileak: fakturak, jakinarazpenak, ...; zerbitzu publikoak; etxeko hizkuntza; kultura: liburuak, musika, zinema, antzerkia, ... eta ezina ekinaz egina: zenbait bidelagun.

Hausnarketarako galderak eta ekimen proposamenak jasotzen dira UEMAK ondutako txostenean. Hura eskuratu nahi duena www.uma.eus web orria du.

Herrien egoerara moldatuta

Euskal Herri osoan batera egingo da Euskaraldia. Egoera soziolinguistiko desberdineko herrietan jarriko da martxan, beraz, 11 egun euskaraz ariketa soziala. Herriz herri antolatzaileak eta tokian tokiko batzordeek protagonismoa izateak aukera ezin hobea eskaintzen du, oinarri berdinetik abiatuta, nork bere egoerara egokitutako ariketa egiteko. Ildo horretan, UEMAK egindako proposamena interesgarria da eta proposamen berriak sortu eta zabaltzea daitezen abiapuntu egokia da.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ

Bide

Sakana zaharretik egin nahi digute berriz ere igarobide. Izan da mendeetan Arakil edo Burundaren ubide. Aralar eta Andiaeren erdibide. Lautadatik Iruñerrirako pasabide. Glaziazio garaietako animalia multzo handien migrazio bide, lehen gizakien harrapaketa gupidagabearen adibide. Lehen gizaki haien lantza zorrotzen kide, tren berri batek erasotzen du Sakana, eskatuz berriro zabalbide.

Erromatar latinzaileen harrizko galtzaden ibilbide, haien osteko germaniar tribu beldurgarrien penintsulara sarbide. Euskaldunen aurkako godo eta musulmanen burruka galduen ihesbide. Inbaditzaile gaztelarrek izan zuten erreinu zaharraren galera ekartzeko norabide. Frantses akituen gerra galduen irtenbide. Horrenbeste gauza ikustera iritsi den gure mugarri Beriainen ikasbide, berriz ere ikusteko Sakanan barrena zeharkatzen trenbide.

Nahikoa bideberri eta autobide, kamioi eta auto bihurtu dira sakandarron herrikide. Oraingoan sartu nahi digute erditik

TREN BERRI BATEK ERASOTZEN DU SAKANA, ESKATUZ BERRIRO ZABALBIDE

burdinbide, hark onurarik ekarriko ez digula dugu jarraibide. Zatituz bailara berriz bitan, ezin izan naturarekin bizikide. Laban zorrotzaren antzera, esango didazue zein den gauza hauek egiteko agintarien irizpide. Gure edertasun naturalaren

galbide, nork emango dizkio ondorengoei argibide. Badira bizilagunak elkar laguntzen burkide, gera dezagun abiadura handiko trena, hura ez baita inondik inora konponbide.

GUTUNAK:

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).

GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak:

egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu /

gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Pentsioak

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Pentsioen gaiari heldu beharko diogu berriz ere. Ez da, urtean zehar erabat desagertzen den gaia, baina urtearen hasieran protagonismo berezia hartzen duen gaia da eta, aurtien ere, hala izan da. Hasi gara Gobernuak bidaltzen digun gutuna hartzen eta, beti bezala, harro ikusten dute beren burua, guretako hobekuntza bermatzen dute eta datozen belaunaldientzat babes ekonomikoa ere bai. Jubilatuoak ez gaude ados gutun horrek dioenarekin.

Jubilatuak munduan mugitzen garenok, gure kezkek gizarteratzen hasiak

ginen. Jubilatuen egoera gero eta larriagoa da. Bere denboran, pentsioen igoera zehazteko inposatu zuten irizpidea (%0,25) oso kaltegarria izango zela aurreikusia genuen. Kontsumoko prezioen indizeak gora egin duen heinean, pentsioen erosteko ahalmena pikutara joan da. Gero eta murriztagoa gelditzen zaigu hileroko soldata. Aurtien ere %1,2koa izan da KPIren igoera.

Madrilen betiko jokoa agerian gelditu da. Bañez andreak aurrea hartu nahi izan die gure kexuei bere proposamenarekin. Egon gaitezen bada lasai,

pentsioen diru kopurua igo eta, bermatzeko errebalorazio irizpide berrien bila hasi dira. Ba, ez gara lasai geldituko eta jublatu guztiok elkarrekin borrokan asteko garaia da.

“ADINEKOEK KRISIAREN AURKA” Koordinakundeak hilaren 8an eta 9an hau dena salatzeko egin zuen ekintza arrakastatsua izan zen. Jubilatuek inoiz eman duten erantzunik jendetsuena gertatu zen, asko izan ziren Fatima Bañezi itzuli zitzaizkion gutunak. Oso errete gaude eta ez dugu etsiko. Hau da bidea, asko gara eta elkartzen bagara eraginkorrak bilakatuko gara.

OBJEKTIBOTIK

Emari handiko egunak izan ditugu

Euria goitik behera. Eta horrekin batera, mendietako elurren urtzea. Horrek erreka eta ubeldeak emari handia izatea ekarri du aste honetan. Horren lekuko Irañetako zubitik ateratako aldameneko argazkia. Ikustekoa izan da ur piloa eta hark zuen indarra. Ubeldearen emari handiak Irañeta eta Uharte Arakil arteko errepeidea (NA-2410) azken herri horretako zubiaren ondoan moztea ekarri zuen.



IZASKUN BENGOTXEA

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzaileak:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:

Maialen Huarte Arano
Zuzentzaileak:
Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzaileak:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundifiano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



Altsasuko argiteria publikoa berritzeko proiektua, aurrera

Altsasuko Udalak aho batez onartu du argiteria publikoa berritzeko lehen faseko proiektua, baita bere finantzazio plana ere. Otsailaren 14an egindako bilkuran izan zen hori. Toki Azpiegitura Planean jasotako lanak 264.677,47 euroko aurrekontua du. Guztira 453 argi berritzea eta beste dozena bat argi puntu berri jartzea aurreikusten du onartutako planak. Baikolar, Ibarrea, Amezitia (argiteria hobetzeko argi puntu bat gehiago), Altsasu institutua, Zubeztia (argi puntu bat gehiago), Beheko benta (zortzi argi puntu gehiago), Ondarria (bi argi puntu gehiago) parajeetako argiteria publikoa da berrituko dena.

Altsasuko Udalak zerbitzu anitzetako langilea hartuko du

Altsasuko Udalaren obra eta zerbitzu lantaldean zerbitzu anitzetako enplegatu izateko lanpostu bat aldi baterako betetzeko deialdia egin du. Kontratuak lanpostua behin betiko bete arte iraungo du. Kontrata-tu D mailakoa izanen du. Lanaldi osoko kontratua egingen zaio eta zerbitzuko beharrei egokitu-tuko zaie.

Altsasuko Udalaren lan eskaintza pasa den ostiralean argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak. Lanpostuan interesa duten pertsonak 30 egun natural dituzte euren eskaerak eta deialdiak eskatzen duen dokumentazioa Altsasuko udal-txean aurkezteko.



Etxarri Aranazko Udalak egingen dituen aldaketan berri ematen duen irudia.

Oinezkoendako egiteko lanak, ostegunetik aurrera

Etxarri Aranazko udaletxe pareko zelaia eta Iturri eder pareko zatia oinezkoendako espazio bihurtuko dira. Horrekin batera, Larrañeta kaleko trafikoaren norabidea zentzuz aldatuko da. Hango aparkalekuak mantendu egingen dira, atzeraka aparkatzeko

ETXARRI ARANATZ

Iturri eder eta udaletxe parean autoak aparkatzeko azken egunak dira hauek. Heldu den ostegunean bi espazio horiek oinezkoendako bihurtzeko lanak hasiko ditu Etxarri Aranazko Udalak. Udaletxe parean dauden galtzada harriak kendu eta plazako moduko harlosak jarriko dira. Oinezkoendako espazio

horrek Larrañeta kalearen zati bat hartuko du ere, botika pareraino. Pertsona helduendako, haurren guriendako eta mugikortasun arazoak dituztenendako galtzadarriak traba izan dira orain arte. Iturri inguruan da goen asfaltoa harlosengatik aldatuko dute ere.

Plaza hobetzeko prozesuan oinezkoen mugikortasuna erraz-

teko neurriak hartu beharra zegoela ondorioztatu zen. Horregatik, egingen ditu lan horiek udalak. Horri lotuta, udalak 80 auto baino gehiago aparkatzeko toki prestatu zuen Larrañondo kalean joan den urte akaberan.

Kaleak

Lan horiekin batera, Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi du

Kaxarna eta Iturriko kaleak trafikoarendako itxiko dituela. Horretarako, piboteak jarriko dituzte. Baina, aurrerago, ez du bazterten jardinerak edo aulkiak jartzea.

Horrekin batera, Larrañeta kaleko norabidea aldatu egingen da. Hala, Burundabide kaletik, errepidetik, sartzen direnak bakarrik aurrera zuzen joateko aukera izanen dute eta behin frontoia pasata ezkerretara egi-tea beste aukerarik ez da izanen. Ikastola hartzen duen etxadian beti ezkerrean biratzeko aukera izanen da, Errotazar eta Ikastola kaleak norabide bakarrekokoak direlako.

Horiek behar bezala adierazteko udalak seinaleak aldatu, norabide berriak eta zebrabideak margotuko ditu eta aparkatzeko espazioak markatuko ditu. Frontoiaren parean aparkatzeko dauden tokiak bere horretan mantenduko dira. Baina segurtasun arrazoiengatik atzeraka aparkatu beharko dute autoek. Lanek 28.000 euroko aurrekontua dute.

Etorkizunean

Etxarri Aranazko Udalaren asmoa da oinezkoendako egingo diren lan horiek despeditu eta gero, udaletxearen eta Derry tabernaren parean dauden zebrabideen arteko tarteari erreparatzea, oinezkoen eta ibilgai-luen espazioak ordenatzeko.

Bestetik, Burundako norabidean joaten diren autobus zain dauden pertsonendako markesina bat jarri nahi du udalak aurrerago. Egingen diren lanen irudian agertzen bada ere, markesinak oraindik ez du kokaleku zehatzik. Hura zehazteko trafiko arduradunekin hizketa-tzen ari da udala.

Ostiraleroko

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Euskaraldiaren aurkezpena
- Fernando Iriarte Larrearekin pentsioen inguruan
- Iñaki Agirrerekin Etorkizuna dantza eskolaren 25. urteurrenaz

beleixe

107.3 FM

www.guaixe.eus-en ON LINE

Thoteetakro argazkiak eta bideoak

Thoteen kanal bererian

www.guaixe.eus





"Zorionik beroenak zuen eguneroko lanagatik" dio gobernuko ordezkariak polizia-etxeari oparitutako argazkia.

Foruzainen lanari aitortza

Behar baino polizia gutxiago ari dira lanean eta Iruñeatik etorri behar izaten dute. Azken lan eskaintza publikoan plaza lortu zuten agenteen trebakuntza saioa bukatzean plantilla handituko da

SAKANA
Foruzaingoaren patroia eguna larunbatean ospatuko da, baina horren harira asteen zehar hainbat ekitaldi antolatu ditu Nafarroako Gobernuak; aurrenekoa asteartean. Lehendakari-

tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari Maria Jose Beaumontek Altsasu eta Elizondoko Foruzaingoa-ren polizia-etxeak bisitatu zituen. Harekin batera Barneko Zuzendari Nagusi Agustin Gastamin-

za eta Foruzaingoko buru Torcuato Muñoz izan ziren. Haiekin bat egin zuen Javier Ollo Martinez Altsasuko alkateak ere.

Foru administrazioko ordezkariak nabarmendu zuten Altsasura egindako bisitak aitor-

tzatik asko zuela. "Eskaintzen ari diren zerbitzu handia zuzenean aitortu nahi diegu bertan lan egiten duten foruzainei". Azaldu zutenez, gaur egun polizia-etxean 18 agente daude lanean, eta 40 beharko lukete. Horregatik, behin behinean, Iruñeatik laguntza jasotzen dute. Hutsik dauden 23 plaza horiek oinarritzko sarrera ikastaroa sarri hasiko duten 37 agenteek eta aurki deituko den lan eskaintza publikoko beste 17k beteko dituzte. Guztira 22 polizia sartuko dira horrela. Inspektore bat izendatu beharko litzateke ere. Horregatik, gaur egun bertan diren agenteei egiten ari diren ahalegina eskertu diete.

Hitzarmena

Altsasuko Udaltzaingoak hiru kide ditu gaur egun. Berriki udaltzain plaza bat oposizio bidez betetzeko deialdia egin du Altsasuko Udalak. Eta aurtan bertan beste bi plaza betetzeko lan deialdi publikoa egingen du. Azken horiek joan den urtean jubilatutako bi agenteren postuak betetzeko izanen dira. Bestetik, 2014ean gobernuaren bidez ateratako hiru plazen deialdiari helegitea jarri zitzaion eta badi-rudi haiek argituta deialdiak aurrera egingen duela. Goiz eta arratsalde zerbitzua emateko zazpi bat agente beharko dira.

Javier Ollo Martinez alkateak azaldu zuenez, kontratazioak

egin bitartean Altsasuko Udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatuko dute. Haren bidez, foruzainek Altsasuko udaltzainen "administraziokoak ez diren funtzio batzuk hartuko dituzte, batez ere, hiri eta errepide segurtasuna". Alkateak jakinarazi zuenez, "aurtengo aurrekontuan 72.000 euroko diru saila aurreikusi dugu. Asmoa da diru kontuak martxoan onartzea. Apirilean edo behin betiko onartzen badira, orduan sinatuko dira eta ordurako urtearen heren bat pasa denez, kopurua txikiagoa izanen da".

Eremua

Altsasuko polizia-etxetik Foruzaingoak Leitza, Araitza, Olloibar, Goñibar eta Ziordia bitarteko eskualdea hartzen dute.

Kamineroren bi etxeez

Gozogintza eskola hartu zuen eraikinean egokitzen lanen lehen zatia egin zen joan den urtean. Lanak guztiz despeditzean Altsasuko enplegu bulegoa han jarriko da. Azken eraikinaren beheko solairuan etxegabeen aterpe berria egonen da. Gobernuaren aurrekontuan 50.000 euro daude lan horretarako. Alkateak azaldu zuenez, "2017ko kontuak ixten ditugunean, baloratuko dugu lana egin dezakegun edo ez. Lan gehiago daude ere eta ikusi behar nola planifikatzen dugun".

650 gertakari penal 2017an

X Altsasuko polizia-etxean horiek tramitatu ziren joan den urtean, foruzainek ofizioz edo herritarrek abiaraziak. Kopuruak gora egin duela jakinarazi zuten. Horretaz aparte, toki erakundeak ere laguntzen dituzte hiri segurtasunean, araudien inguruan...

Genero indarkeria

Gaur egun 30 kasu zabalik dituzte eta jarraipena egiten ari zaizkie. "Hasi ginenetik kopuru handiena da. Nahikoa kasu dira. Horiek kudeatzeaz lau polizia arduratzen dira". Egoitzaren egokitze lanak, arreta hobea eskaintzeko egiten ari da.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak
SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

Ate irekiak
Otsailak 27
17:00tan

Aurrematrikula;
Martxoaren 1 etik 15era
Matrikula;
Maiatzaren 21etik 25era

Arbizu eta Lakuntzako udal haur eskola
Uhaide Kalea 2/g, 31839 Arbizu
948 567 009

www.kattuka.com
haurren eskola

Bidegorria egiteko 1.251 sinadura aurkeztu dira

Otadiako bidegorria Dantzalekuraino eta instituturaino luzatzeko proposamena da udalari aurkeztu zaiona. Institutura, ikastolara eta kirol gunera oinez eta bizikletan joaten diren gazteen bide segurtasuna ziurtatu nahi da

ALTSASU

Bidegorri bat egiteko eskatuz 1.1251 sinadura aurkeztu dizkio-te Altsasuko Udalari. Otadian dagoen bidegorria luzatzea eskatzen da. Batetik, Dantzaleku-ko kirol guneraino eta, bestetik, Altsasu instituturaino eta Iñigo Aritza ikastolaraino.

Proposatutakoaren arabera, basorantz joaten den egungo bidearen eskuin aldean, paralelo, eraikiko litzateke bidegorria, 2,5 metroko zabalera lukeena. Basamuturreko bidegurutzeraino horrela joanen litzateke. Handik Dantzalekura bidegorria ezkerretik egitea proposatzen da. Ikastetxeetarako adarra, ber- rriz, institutu arteko errepide- raino eskuinetik eginen litzateke lehenik eta gero ezkerretik segi- tze. Basamuturgo zubia zabal- du beharko litzatekeela diote.

Pedro Jose Arregi Mugika izan da sinadurak bildu eta aurkez- tu dituen. Zinegotzi zela uda- laren ordezkari izan zen insti- tutuan eta hala jakin zuen bi- degorriaren premia zegoela. "Gainera, bidegorri sare zaba- lago baten zati izan daiteke". Horregatik, lehen eskaera joan den urteko irailaren 8an egin zuen. Eskaera harri hilaren 12an egindakoa gehitu zion. Doku- mentazio gehigarriarekin bate-



Autobusa ikastetxeetarako, bidegorria bidearen eskuinean egitea proposatu dute.

ra, sinadurak aurkeztu zituen. Lagundu dioten dendari eta herritarrei eskerrak eman dizkie.

Babes gehiago

Altsasu institutuko eta Iñigo Aritza ikastolako ordezkariak herenegun egin zuten eskaera Altsasuko Udalean: "herria ikas- tetxeekin eta Dantzalekurekin bidegorri bidez lotzeko egiten ari diren sinadura bilketarekin bat egiten dugu". Bi ikastetxeek idatzi berean, ibilbidean dagoen argiteria publikoa eskasa dela eta egoki argiztatzeko eskatu

dute. Ikastetxeekin batera So- ciedad Deportiva Alsasuak eta Dantzaleku Sakana klubak egin dute eskaera.

Ikastetxeek diotenez, bai haiek dauden tokia bai Dantzaleku "aparteko garrantzia dute esko- la, aisialdi eta eskolaz kanpo jardueretarako, horregatik, egu- nero jendearen joan-etorriak daude, bai ikastetxeetara, bai kirol gunera". Gaineratu dute- nez, "gutxieneko bide segurtasun falta dago, bestela, joan-etorriak oinez edo bizikletan egitea sus- tatuko genduke".

Aman Komunak proiektuaren biltzar nagusia Ziordian

Ziordiko Amarauna gune autogestionatuan Euskal Herri osoko kolektiboak bilduko dira asteburu honetan

ZIORDIA

Larunbatean eta igandean au- togestioan eta herrigintzan diharduten Euskal Herriko kolektibo eta interesatuak hitzor- dua dute Ziordiko Amarauna gune autogestionatuan. Bertan Aman Komunak proiektuaren aurkezpena egingen da eta, bide batez, hainbat auzolan egingen dira Amaraunan.

Aman Komunak

Aman Komunak ekimena 2017ko ekainean sortu zen, Notre-Dame- des-Landes herriko ZADarekin lotutako harremanen haritik. Aman Komunak ekimenean Euskal Herri osoko kolektibo eta pertsonak biltzen dira, au- togestioari eta, orokorrean he- rrigintzari bulkada bateratua emateko. "Elkar ezagutzea eta dinamiken egituratzea dugu xede, bakoitzaren esperientzia, baliabide eta gogoei indarrak eskainiz, baita guztien artean proposamenak adostuz. Gardent- tasuna, horizontaltasuna eta inklusibitatea hartu ditugu oi- narri, aniztasunak ederrago eta eraginkorrago egiten gaituela sinetsita" adierazi digute Aman Komunak elkartetik.

Hiru hilabetetik behin aske- gune batean elkartzea erabaki zuten Aman Komunak ekime- neko kideek, auzolanak egin eta ekimenak antolatze. Jakina, talde eta pertsona berriek ateak zabal-zabalak dituzte. Horrela, asteburu honetan Aman Komu- nak proiektuaren biltzar nagu-

sia Ziordian burutuko da, Ama- rauna gune autogestionatuan, igandean. Baina bezperatik hasiko da egonaldia.

Auzolanean egitekoak

Izan ere, larunbatean, goizeko 10:00etarako dute hitzordua. Au- zolana antolatze bilerak egin- go dute, eta Ziordiko Amarauna auzolanean hasiko dira bereha- la. Hainbat lan egin nahiko li- tuzkete: proiektuetarako gelak 2. solairura igo eta solairuko honetako gelak txukundu, altza- riak mugitu, areto nagusiko antzeztokiaren zoru konpondu, kanpoaldea txukundu, kimatze lanak, seinalizazio kartela, egu- rrezko konpostagailua, fosa sep- tikoia jartzeko lehendabiziko lanak egitea... 13:00etako geldial- dian Amarauna proiektuaren aurkezpena egingo dute, eta bazkaldu ondoren auzolanak segiko du. 19:00etan igandeko Aman Komunak ekimenaren aurkezpen biltzarra prestatzeko asanblada irekia egingen dute eta, ondoren, afaltzera bilduko dira.

Igandean Aman Komunak proiektuaren biltzarra goizeko 11:00etan hasiko da. Bazkarirai- noi luzatuko dira, eta arratsal- dean biltzarren sortutakoa ga- ratzeko aukera izango dute.

Ziordiko ekimen hauetan par- te hartzeko ez da aurrez aldetik abisatu behar, baina antolakun- tzak eskertuko luke amarauna- ziordi@gmail.com helbidera mezu bat bidaltzea, antolakuntzan hobeto aritzeko.

AHT egitasmoari alegazioak jasotzeko azken asteburua

Sakana Trenaren Alde eta Sustrai Erakuntzak asteartean aurkeztuko dituzte gobernu ordezkari- tza

SAKANA

Sustapen Ministerioak Iruñea eta Euskal Autonomia Elkar- teko Abiadura Handiko Tren (AHT) sareak Sakanan barna lotzeko proposamena egin du. Hura jen- daurrean hilabetez egonen da.

Bitarte horretan egitasmoak ukitutakoek eta haren kontra daudenak alegazioak aurkezte- ko aukera izanen dute.

Sakana Trenaren Alde taldeak, eta Sustrai Erakuntza fundazioak, elkarrekin, informazio hitzaldi

sorta eman dute Sakanan barna. Azaldu digutenez, jendea gaia- rekin kezkatuta, asko joan da hitzaldietara.

Horrekin batera, alegazioak sinatzeko orriak zabaldu dituz- te. Hainbat toki publikotan dau- de paper horiek. Bi erakundeek gaztigatu digutenez, oraindik alegazioa sinatu ez, baina ho- rretarako asmoa duena, mugitzea du. Haien asmoa idatzi horiek guztiak asteburu honetan jaso- tzea da, Nafarroako gainontze- koekin batera aurkezteko.

Uharte Arakilgo udal haur eskolan izen emateko epea

Pausoka haur eskolak 0 eta 3 urte arteko umeei zerbitzua ematen die Uharte Arakilen. D eredu ikastetxea da, hau da, euskarazko hezkuntza eskaintzen du. Espazioei dagokienez, era- bilera anitzeko gela hesi baten bidez bitan banatuta dago, alde bat ibiltariendako da eta, bestea, titikoendako. Hiru gunetan ba- natutako patioa dago ere: par-

kea, harriak eta baratza. Psiko- motrizitate gela zabal-zabala dute Pausoka haur eskolan. Horretaz aparte, logelak eta su- kaldeak eta jangelak osatzen dute haur eskolaren azpiegitura guztia.

Uharte Arakilgo udal haur eskolak asteartean, 16:00etan, ate irekien jardunaldia egingen du. Horren ondoren, aurrema- trikulazio epea zabalduko da, martxoaren 1etik 15era. Udale- tik jakinarazi dutenez, plaza eskaintza zabala dute.



Plazaolako Bide berdean barrena. ARTXIBOA

Ederbidea egiteko udalez gaindikoa plan sektoriala

Bidasoako eta Plazaolako bide berdeak lotuko ditu Ederbideak, Doneztebe eta Irurtzun artean

ARAKIL / IRURTZUN

Ederbidea Baiona, Donostia eta Iruñea bizikleta ibilbide bidez lotzeko egitasmoa da (240 km), Europako Eurovelo ziklistendako ibilbide sarearen parte izanen dena eta kontinentea zeharkatzen duena. Nafarroan proiektua garatzeko Bidasoako eta Plazaolako bide berdeak lotuko dituzte, Doneztebe eta Irurtzun arteko bide bat sortuz.

Nafarroako Gobernuak lan hori Udalez Gaidikoa Plan Sektorialak (UGPS) izendatu eta hala publikatu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean atzo. Han jaso denez, Doneztebe eta Irurtzun lotzeko lau alternatiba posibleen artean bigarrenaren alde egin dute (52 km): Donamaria, Saldias eta Jauntsarats herrietan barna, batez ere N4040 eta N4114 errepideen trazaduratik joanda, eta Belate Gorostietako mendatetik igarota.

Horrela arrazoitu dute: "ibilgailu motordunen trafikoak eta maldek ahalbidetzen dute Eurovelo sareko baldintzak betetzea. Gainera, lotura egiteko aukerarik motzena eta trafiko gutxien duena da, eta, aldi berean, balioa ematen die bideko herriei, biztanlerik gabe gelditzen ari diren herriak baitira". Latasan bat egiten du Plazaolarekin.

Bestalde, Plazaola bide berdeko Arakil eta Sarasa arteko lanek aurrera segitzen dute. Pasa den garagarzaroan hasi ziren lanak eta hasieran asko aurreratu bazuten ere, elurte eta euriteengatik lanak geldiarazi zituzte. Arakil kide den Plazaola turismo partzuergoko kudeatzaile Gustavo Ortiz Barronek azaldu digunez, aurreikusitako geldialdiak dira egindakoak. "Lanak, berez, urte baterako dira. Garagarzaroan despedituko dituzte".

Udalaren 20.000 euro zertara bideratuko dira?

Altsasuko Udalak martxoaren 1etik 23ra herritarren proposamenak jasoko ditu. Bideragarrienak direnak aukeratu eta horietatik zein egingen den altsasuarrek erabakiko dute boto bidez, maiatzaren 16tik 30era

ALTSASU

Altsasuko Udaleko Parte hartze Batzordeak aurrekontu parte-hartzaileak sustatzea erabaki du. 2017ko diruzaintzako geroak 20.000 euro zertara bideratu aukeratu dute altsasuarrek.

Udal eskumenekoak diren arloetan, izaera sozialeko eta interes publikoko inbertsioak egiteko proposamenak aurkeztu ditzakete altsasuarrek, 16 urtetik gorakoek. Izaera sozialari dagokionez, herritarrei orokorrean edo beharra duten babesgabeko gizarte sektoreei eraginen dieten proiektuak izan behar dute.

Herritarrek euren proposamenaren berri ematerakoan memoria labur bat aurkeztu beharko dute (500 hitz baino gutxiago), eta argazkiz, taulez, eskemaz edota marrazkiz lagundu dezakete. Proposamenak propio sortutako inprimakietan idatzi beharko dira. Haiek udaletxean eta udal web orrian (www.alsasua.net/eu) eskuragarri egonen dira. Proposamenak aurkezteko epea martxoaren 1etik 23ra izanen da.

Hautaketa

Parte hartze batzordeak jasotako proposamenak aztertuko ditu



Altsasuarrek festen datei buruzko galdeketa parte hartzen 2015ean.

eta deialdiarekin bat egin eta bideragarriak direnak aukeratu ditu. Horien artean aukeratu ahalko dute altsasuarrek maiatzaren 16tik 30era egingen den bozketan.

Boto eskubidea duten pertsonak boto bakarra emanen dute. Hartan, gehienez ere hiru proposamenen alde egiteko aukera izanen du, 3, 2 eta 1 puntu emanaz. 3 puntu gogokoen den proposamenari emanen zaio. Botoa emateko aukera udaletxean, kultur guneko ezkaratzean eta udalaren web orrian izanen da.

Bozketaren ondoren berdinketa izanen balitz batzordeak aukeratu luke. Aukeratuak inbertsioa aurrean egingen da eta udalaren web orriaren bidez haren garapena ikusteko aukera izanen da.

Abenduren 18an egindako plenon aurtengo zergak zehaztu ziren. Kontribuzio zerga % 1,5 igoko da eta, ondorioz, aurreko udalaren diru sarrerak 17.327,22 euro handitzea espero da. Udalak akordio berean erabaki zuen diru sarrera hori aurrekontu parte-hartzaile bideratzea.

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

Txooooo!

JUANLUZENEA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE
txotx denboraldia zabalik

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 948 562 341 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU

Pentsio duinak eskatu dituzte pentsiodunek

Nafarroako Pentsionistak Martxan taldeak gutxieneko 1.080 euroko pentsioa eskatu du. Baita Gizarte Segurantzako sistema propioa ere, "etorkizuneko pentsioak bermatzeko". Pentsio duinen alde mobilizatza deitu dute

ALTSASU

Hego Euskal Herriko hainbat tokitan bezala, Altsasun ere pentsiodunek kontzentrazioa egin zuten Nafarroako Pentsionistak Martxan (NPM) taldeak deituta astelehenean. Fernando Iriarte Larreak azaldu zuenez, pentsio duina eskatzeko elkartu ziren; 1.080 eurokoa izan dadila eta hori bermatzeko lege bat garatu dadila. Horregatik, 7.200 sinadura bildu eta Herri Ekimen Legegilea aurkeztu zuten 2017an Nafarroako Parlamentuan. EH Bildu eta Ahal Duguren aldeko botoak, ez zuten aurrera egin.

Iriartek esan digunez, "hemen kotizatu dugu, pentsioak hemen kudeatzea nahi dugu. Kutxa bakarra, elkartasun kutxa... halako mezuak gaingitu behar ditugu. Hori ez da egia. Nola kudeatu duten ikustea besterik ez dago. Pentsioak ez, beste gauzak pagatzeko erabili dute". Gogorarazi zuten pentsioak ez direla ez gobernuak ezta langile aktiboek emandako "dirusariak, pertsona aktiboa lanean aritu den urteei dagozkien diru-ekarpenak edo aktiboak dira. Horiek behar bezala kudeatu balituzte, pentsio duinak bermatzeko nahikoa diru legoke, egungo eta etorkizuneko pentsioak bermatzeko".



"Elkartasunagatik, justiziagatik eta etorkizunagatik" mobilizatza deitu dute.

Igoeraz

Pentsioak % 0,25 baino gehiago igo behar direla aldarrikatu zuten kontzentrazioan, horrela galdutako erosteko ahalmena berreskuratuko delako. 2011tik % 6,5 jaitsi dela gaztigatu zuten. "2022ra arte Rajoyren Gobernuak inposatutako % 0,25eko igoera ezartzen badigute, gure erosteko ahalmena gainbehera joanen da". Igoera hori "lotsagarria" dela salatu zuen NPMeko kideak, eta pentsiodunek gero eta behar-tsuagoak direla nabarmendu zuten.

Horregatik, aldarrikatu zuten pentsio-balioaren igoera kalkulatzeko Kontsumorako Prezio Indizea (KPI) erreferente gisa berreskuratzea, % 0,25eko igoerarekin haustea eta Europako Gizarte Kartak gomendatzen duenari segituz, gutxieneko pentsioa 1.080 eurora igotzea. Aldi berean, etorkizuneko pentsioak bermatzeko Gizarte Segurantzako Sistema Propioa aldarrikatu zuten. Horregatik, gertuen duten gobernu, Nafarroakoa, "kontrolatzen" ahaleginduko direla gaztigatu zuten Iriartek.



1960-2010 urte artean torturatutako 117 sakandarrak gogoratu zituzten.

Sortuk Nafarroako Gobernuari tortura ikertzeko eskatu dio

Torturaren aitortza, erreparazioa eta ez erreplikatzeko bermea eskatu zuen Etxarrin egindako ekitaldian

SAKANA

"Estatu espainolaren indarkeria salatzen" elkartu ziren hainbat sakandar Etxarri Aranazko Mikel Arregi plazan larunbat eguerdian. Sakanako Sortuko bozeramaile Unai Razkinek azaldu zuenez, "tortura sistemikoa eta sistematikoa izan da gure herrian. Gainera, isilarazi nahi izan duten errealitatea izan da eta, oraindik ere, isilarazi nahi dutena". 117 sakandarrek tratutxarrak eta torturak jasan dituztela gaztigatu zuten. "Egoera horiek aitortu beharrezkoak dira", gaineratu zuen. Gobernuari eskatu zion "lehenbailehen iker ditzala Nafarroan izan diren tortura guztiak. Guztiz beharrezkoa da. Aurrera egiteko ezinbestekoa da torturaren aitortza, erreparazioa eta ez erreplikatzeko bermea".

Tortura bizi zuten Patxi Arratibelek, Amaia Mundiñanok eta

Santi Galartzak hartu zuten hitza ondoren eta bakoitza kontzeptu baten inguruan aritu zen. Arratibelek egia hartu zuen hizpide eta plazan bildutako guztiei eskatu zien bere "egia" zabaltzeko. "Nire egia, 117ren egia bihurtzen ari zaretelako. Sakanan torturatu egin dute. Torturatu gaituzte". Aitortza inguruan hizketatu zen Mundiñano eta eskatu zuen "hemen ez dauden herritarrek, zinegotziek, alkateek, kontseilariak, kazetariak, alderdi politikoeak..." tortura aitortzea. Ez erreplikatzeko bermea izan zuen hizpide Galartzak. Berritortza gertatzeko, torturak izan direla aitortzea eskatu zuen. Eta horretarako bitartekoak jartzea eskatu zuen. "Torturarekin eskuak eta arima zikindu dituzten horiek alde egin behar dute hemendik".

PORTUKO okindegia

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

BILTOKI
TABERNA • JATETKEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua 9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

Angulen zozketan parte hartu!!!

Sariduna martxoan jakinaraziko dugu

mariaeugenia
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Altsasuarren Nafarroako Biraren lehen etapa, bihar

Altsasuko auziaren berri herrialdean barna zabaltzeko altsasuarrek bost etapatan foru geografia zeharkatuko dute. Aurreneko etapa bihar egingen dute eta Zubirira, Garraaldara, Otsagabiara, Irunberrira eta Zangozara eramanez ditu

ALTSASU

Altsasuko 48 kultur, kirol, gastronomia, gizarte edota elkarteak eta taldeak (kopurua handitu daiteke) bat egin dute. Helburua: "Altsasuko zortzi gazteak eta beraien familiak pairatzen ari diren injustiziaren aurrean Altsasuko auziari buruzko informazioa zabaltzea". Horretarako, Nafarroako eskualde guztietatik bira egingen dute, justizia eskatuz, gertatutakoa terrorismoa ez dela nabarmenduz eta presoaren askatasuna aldarrikatuz.

Egiteko horretan bihar hasiko dira eta martxoaren 25ean despidituko dute. Haietan parte hartzen dutenek, nor bere garaioa eramatea eskatu dute. Etapak behar bezala prestatzeko antolakuntzak azaldu du kome-ni dela zenbat jende eta auto mugituko diren jakitea. Horregatik, altsasumartxan@gmail.com e-postan izena ematea eskatu dute, eta horrekin batera zehaztea zenbat pertsona eta



Biraren prestatketan 690 nafarrek parte hartu dute. 17 herritan taldeak sortu dira.

zenbat autotan joanen diren etapara.

Lehen etapa

Aurreneko etapa Zangozako merinaldera zeharkatuko du. Parte-hartzaileak 09:00etan abia-

tuko dira Altsasutik, suhiltzailen egoitza parean dagoen aparkalekutik. Lehen geldialdia Zubirin egingen da, 10:15ean. Martxistei kiroldegia-aren aurrean harrera egingen zaie eta Altsasuko gurasoek aurkezpena egi-

nen dute. Ondoren, hamarretakoa izanen da, musikak alaituta. Eguerdian Garraaldan izanen da bigarren geldialdia. Bertako ihote taldeak, Aezkoa eta inguruko taldeek antolatutako ekitaldia izanen da. Hura despidituta, errepidez Otsagabiara joanen dira. 13:45ean herriko taldeek musika harrera egingen dute. Altsasuko gurasoek euren aurkezpena egingen dute eta tokiko jaki tradizionalekin herri bazkaria egingen da.

Lehen etapako azken aurreko geldialdia Irunberrin izanen da, 17:30ean. Tokiko eragileek harrera egingen diete altsasuarrei eta auziaren inguruko informazio ekitaldia egingen da. Hangoa despidituta, 19:00etan izanen da etapako azken hitzordua, Zangozan. Herriko elkarteek eta zantzarrek harrera egingen diete, kalejira izanen da eta gurasoek hitza hartuko dute. Musika ez da faltako, ezta akabera festa ere.

Altsasuko herria Nafarroan barna eramanez duen lehen etapa hori auzipetutako gazteak kartzelan 467 egun daramatenean eta epaiketarako 51 egun falta direnean egingen da. Martxako antolatzaileek azaldu dutenez, "herriko zortzi familiek jasaten ari direna, justiziaren erabilera makurraren ondorioa da".

Arcotik kanpo

Madrilgo arte garaikideko azokan, Arcon, Altsasuko auzipetuak

presente egon dira. Santiago Sierra artistaren *Preso politikoak gaur egungo Espainian* lana Helgar de Alvearren galeriatik kendu arazi zuen antolakuntzak. Sortzaileak espetxean dauden edo egon diren 24 pertsonen argazki pixelatuak zintzilikatu zituen, izenik eman gabe, baina kartzelan sartzeko arrazoia emanez. Kataluniako eta Euskal Herriko politikoekin batera, Altsasuko auziko gazteak agertzen ziren. Lana kentzea zentsura dela salatu dute hainbatek.

Nafarroako Birako etapak

Otsailak 24

- Zubiri, Garraalda, Otsagabia, Irunberri eta Zangoza.

Martxoak 3

- Tafalla, Gares eta Lizarra.

Martxoak 10

- Lekunberri, Leitza, Elizondo, Lesaka eta Baigorri.

Martxoak 17

- Iruñerrian bizikleta martxa.

Martxoak 24

- Tuter eta Erribera.

Amnistia Internazionalaren txostena

Munduan giza eskubideen egoera zertan den aztertzen duen txostena argitaratzen du urtero Amnistia Internazionalak. 159 estaturen eta lurralderen argazkia egiten dute erakundeko adituek, beti ere giza eskubideak kontuan izanik. Ikertutakoan artean Espainia dago. Estatuko atalean Kataluniako egoera, errefuxiatuak, torturak eta tratatu txarrak, Frankismoaren zigorgabetasuna, indarkeria matxista eta beste.

Amnistia Internazionalen txostenak Altsasuko auziari ere aipamena egiten dio. Zortzi auzipetuei terrorismoaren kontrako legedia aplikatzea salatu du erakundeak: "epaileek terrorismoaren kontrako legedia neurririk gabe aplikatzen segitu zuen joan zen urtean. Altsasuko taberna batean, 2016ko lastailean, zerbitzuz kanpo zeuden bi Guardia Civilen erasoan ustez parte hartu zuten atxilotutako eta auzipetuetako pertsonetako hiru behin behinean espetxean daude, 2018ko apirilean egingen den epaiketa baten zain".

Giza eskubideen alde lan egiten duen erakundeak, besteak beste, estatuan adierazpen askatasunaren eta elkarretaratze baketsurako eskubideen kontrako erasoak opatu ditu azterketan. "Salatzea, baita sare sozialen bidez, gero eta arriskutsuagoa da", eta hori mozal legeari "esker" dela gaztigatu du.

KOMIKI LANTEGIA

INARI MARTIARENA "MATTIN"

DBHko ikasleendako



MARTXOAREN 9AN

Arratsaldeko 18:00etan
Etxarri Aranazko liburutegian

Izena eman
biblietx@cfnavarra.es
helbidera mezua bidalita

Antolatzailea:
Mank
s a k a n a

Laguntzailea:
ETXARRI ARANAZKO LIBURUTEGIA





40
EURO



50
EURO



ERRENTA
AITORPENEAN
BERRESKURATZEN DITUZU



GUaiXe
fundazioa



MECENAZGO CULTURA NAVARRA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Onura fiskala partikularrentzat egindako donazioaren %80 itzuliko zaizu errenta-aitorpenean (lehen 150 eurotan), eta %40 kopuru handiagoko donazioetan.





Nafarroako Kirol Jokoen aurreko urteko jardunaldi bat.

Etxarri Aranatzaren hasiko dira Nafarroako Kirol Jokoa

HERRI KIROLAK Igandean, 11:00etan, pilotalekuan. Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletako taldeak daude

Igandean hasiko dira Nafarroako Kirol Jokoa. Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatzen ditu, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin batera. Bost jardunaldi izango ditu. Igandean lehen jardunaldia jokatu da Etxarri Aranatzan, goizeko 11:00etatik aurrera, pilotalekuan. Martxoaren 4an Beteluk bigarren jarduna hartuko du, martxoaren 11n Antsoainek hirugarrena, martxoaren 18an Igantzik laugarrena eta bosgarren jardunaldia eta finala Berroetan jokatu da, martxoaren 25ean.

Kimuak, haurrak eta kadeteak

Hiru kategoriatan jokatu da txapelketa: kimuak (11-12 urte), haurrak (13-14 urte) eta kadeteak (15-16 urte). Taldeak mistoak izaten dira, mutilek eta neskek osatutakoak. Kimuek herri kirol proba konbinatuan hartuko dute parte, eta haurrek eta kadeteek proba konbinatuan eta sokatiran. Herri kirol proba konbinatuan koxkol biltzea, zaku lasterketa, txinga-erutea eta korrika egin beharko dute kimuen mailakoek, eta haurren eta kadeteen mailakoek trontza gehitu beharko diete aurrekoiei.

Nafarroako 11 kirol talde lehiatzen

Nafarroako Kirol Jokoen 11 kirol taldeetatik sortutako hainbat taldek hartuko dute parte. Sakandarrei dagokienez, Etxarri Aranatzko Andra Mari ikastolako Kirol Elkarteak eta Altsasuko Iñigo Aritza ikastolako Har

Hitza Kirol Elkarteak hartuko dute parte, hainbat talderekin. Berriozar, Basaburua, Araitz-Beteluko Araxes, Igantzi, Baztan-Bidasako BRT Menditarrak, Arartza (Betelu eta Iberok elkarrekin osatutako taldea), Antsoain, Aranaberri (Betelu, Berriozar eta Antsoain taldeen artean osatutakoa) eta Txantrea dira gainontzeko taldeak.

Taldeak, kategoriak

Kimuen mailan 17 talde lehiatuko dira. Horietatik 7 Andra Mari ikastolakoak dira, 3 Iñigo Aritza ikastolakoak, 3 Antsoaingoak eta bana Berriozar, Arartza, BRT Menditarrak eta Igantzikoa.

Haurren mailan, proba konbinatuan 13 talde lehiatuko dira. Andra Mari ikastolak hiru talde ditu, Antsoainek eta Berriozarrekin bina talde, eta Iñigo Aritzak, Araxesek, Txantreak, BRT Menditarrak, Basaburuak eta Artzanezik talde bana. Sokatiran, aldiz, (480 kg) 12 taldek hartuko dute parte. Andra Mari lau talde aurkeztuko ditu, Antsoainek eta Berriozarrekin bina talde, eta Iñigo Aritzak, Araxesek, Txantreak eta Basaburuak talde bana.

Bukatzeko, kadeteetan proba konbinatuan 4 taldek hartuko dute parte: Andra Mari, Iñigo Aritzak, Basaburuak eta Aranaberri. Sokatiran (540 kg), aldiz, 5 talde arituko dira: Andra Mari aurkeztutako bi talde, Iñigo Aritza, Aranaberri eta Basaburua.



Astelenean egin zuten proiektuaren aurkezpena, Sakanako Mankomunitatean. UTZITAKOA

Sakanako Pilota Proiektua, euskal pilota sustatzeko

PILOTA Astelenean aurkeztu zuten proiektua Nafarroako Euskal Pilota Federazioko Iñaki Esainek eta Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. Monitoreak trebatuko dituzte eta gazteei pilotan eta palan entrenatzeko aukera emango zaie

Astelenean Pilota Bultzatzeko Sakanako Proiektua aurkeztu zen. Aipatu proiektua Nafarroako Euskal Pilota Federazioak egin du, Sakanako Mankomunitatearen eta Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Ziordiko Udalen laguntzarekin. Sakanako Pilota Proiektua Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak eta Nafarroako Pilota Federazioko ordezkari eta proiektuaren arduradun Iñaki Esainek aurkeztu zuten. Beraiekin batera, Sakanako pilota eskoletako teknikariak, pilotariak, gurasoak eta beste izan ziren.

Euskal pilotan aritzeko ohitura handia egon da Sakanan, baina euskal pilotak behar bezala aurrera egiteko pilota sustatzeko proiektua egitearen beharra ikusi zen. Horrela, Sakanako Pilota Elkarteekin – Sutegi (Olazti), Pilotajauku (Altsasu), Aldabide (Arbizu), Gure Pilota (Etxarri Aranatz), Lakuntza eta Irurtzun– harremanetan jarri ziren. Dauden

arazoak aztertu eta ideia berriak mahairatu ziren, beti ere eskualdean pilota bulkatzeko. Ideia nagusiak ikastetxeetan pilotaren promozioa egitea, monitoreen formakuntza sustatzea eta beraien taldeetan maila bereko pilotarien taldea osatzeko arazoak dituzten pilotariak monitore formatuekin entrenatzeko elkartzea dira, besteak beste. Bestalde, Gure Pilotako emakumezkoen taldea lagundu eta bulkatu nahi da, Sakanan emakumezkoen pilota sendotzeko.

Ekintzak

Sakanako Pilota Proiektuari esker, ondoko ekintzak burutuko dira: batetik, 6 pilotariko taldeak osatuko dira esku pilo-

ta edo emakumezkoen palan entrenatzeko, astero edo hamabostero. Bestetik, monitoreak formatu eta trebatuko dira eta, Sakanako neska-mutilei aukera emango zaie nahi duten modalitatean hasteko, beti ere, gutxieneko partaidetzarekin.

Hilabetez hilabete

Otsailean, monitoreak prestatu nahi dituzte, sortzen diren pilotari taldeen entrenamenduak planifikatzeko. Eta martxotik ekainera, asteartetan Etxarri Aranatz bi taldek eskuz entrenatuko dute, gazteak eta 22 urtez azpikoak, Mattin Ezkurdiarekin eta Adur Lasarekin. Ostegunetan, Bakaikun, eskuz, kimuak, haurrak eta kadeteak Adur Lasarekin trebatuko dira. Eta astelenean, Ziordian, emakumezkoen bi talde –kimuak, haurrak, kadeteak eta gazteak– paleta argentinarrean trebatuko dira, Asier Galartzarekin. Eta nahi dutenek Lekunberrin trinketeen aritu ahalko dute.

ADIN EZBERDINEKO PILOTARIEN TALDEAK SORTUKO DIRA ENTRENAMENDU ESPEZIFIKOA EGITEKO

Berazak gustura ekin dio denboraldiari Zestoan

MENDI LASTERKETAK Uhartearra bosgarrena sailkatu da Kobaz Koba Trailean. Antzuolan, Maiza 11.a izan zen

Jose Luis Beraza mendi korrikalari uhartearrak gogoz ekin dio 2018 denboraldiari. Igandean, Zestoan, III. Kobaz Koba Trail-eko 25 km-ko proban lehiatu zen sakandarra. 234 korrikalarik lortu zuten guztiz lokaztuta zeuden Zestoako mendi ederretan barna jokatzeko proba osatzea, eta Julen Martinez de Estibariz arabarra (2:12:51) eta Uxoia Irigoien gipuzkoarra (2:44:48) izan ziren irabazleak. Jose Luis Beraza bosgarrena sailkatu zen (2:17:32) eta kontentu dagoela nabarmendu du sare sozialetan. "25 km eta ia 1.500 m desnibel positiboa, lokatz tartean... kilometroak aurrera egin ahala, sentsazio hobeagoekin despeditu dut proba eta kontentu nago, aurtengo denboraldirako irrikan!". Puntan hasi du denboraldia, beraz, uhartearrak.

13 km-koan etxarriarrak

Proba nagusiaz gain, 13 km-ko Kobaz Koba lasterketa jokatu zen. 187 korrikalarik lortu zuten proba despeditzea. Xabi Letek (1:08:02) eta Vanessa Pelaezek (1:28:00) irabazi zuten eta Carlos Mañeru etxarriarra 49.a sailkatu zen (1:34:37). Erkuden San



Jose Luis Beraza, Zestoan. UTZITAKOA

Martin (1:48:12) eta Mikel San Martin (1:48:57) anai arreba etxarriarrak 121.a eta 124.a sartu ziren helmugara.

Maiza eta Razkin Antzuolan

Igandean VI. Antzuolako 8 Miliak lasterketa jokatu zen, 13,8 km-ko proba. Hassan Aitchaou (1:07:24) izan zen proba despeditu zuten 222 korrikalarien artean azkarrena. Joxeja Maiza etxarriarra 11.a sailkatu zen (1:16:26) eta Alberto Razkin 29.a (1:20:38).

Mikel Astiz hirugarrena Valtierrako Duatloian

DUATLOIA Gure duatletek 2018 denboraldiari ekin diote eta primeran ibili dira Valtierrako Duatloian: Mikel Astiz hirugarrena, Sergio Garcia Eulate zazpigarrena eta Juan Luis Maiza lehena beterranoen 2 mailan

Sakana Triatloi Taldeko kideak eta beste taldetan aritzen diren duatleta sakandarrak martxan daude eta denboraldia igandean estreinatu zuten, VI. Valtierrako Duatloian. 250 duatletek hartu zuten parte. Sakandarrak, bizikletan matxura izan eta proba utzi behar izan zuen Gorka Garcia de Eulate izan ezik,



Mikel Astiz Erro podiumera igo zen, hirugarren postura. UTZITAKOA

Sakandarrak Valtierran

Sakandarrak Vi.

Valtierrako Duatloian

1. Alain Santamaria	1:02:16
3. Mikel Astiz	1:02:31
7. Sergio G. Eulate	1:02:53
17. Javier Borrega	1:05:18
22. J. Luis Maiza	1:06:40
24. J. I. Mikeo	1:06:47
26. Ivan Sobredo	1:06:54
49. J.C. Gomez	1:09:14

lehendabiziko 50 postutan sailkatu ziren. Alain Santamariak (1:02:16) eta Nuria Rodrigezek (1:11:08) irabazi zuten Valtierrako Duatloia. Santamariak 15 segundo atera zizkion hirugarrenari, Hiruki Valle de Egües

Triatlon taldean dabilen Ihabar-ko Mikel Astizi. Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 7.a sailkatu zen (1:02:53) eta Juan Luis Maiza etxarriarra lehena izan zela beterranoen 2 mailan.

Elurraren eguna Urbanan

ESKIA / ELURRA Sakanako Mankomunitateak, hainbat talderen laguntzarekin antolatuta, igandean burutu zen Elurraren eguna, Urbanan. Elurbusarekin Urbanara igo eta jaitsi zirenek, Javi Zelaiarekin erraketen ibilbidea egin ahal izan zuten eta Gorka Garciarekin eta Arzelusekin eski ikastaroa. Guztiek txakur leren erakustaldiaz gozatu zuten.



DUATLOIA Arbizu, Altsasu eta Bizi Duatloia ate joka

Aurki hiru duatloi proba garrantzitsu jokatu dira Sakanan. Martxoaren 17an VIII. Altsasuko Duatloia jokatu da, Sakana Triatloi Taldeak antolatutakoa. Goizean kategoria txikikoak lehiatu dira, Nafar Kirol Jolasen barruan, eta arratsaldean, aldiz, helduen proba nagusia izanen da. Izena ematea zabalik dago www.navarratriatlon.com web gunean.

Bestalde, Arbizuko Duatloia martxoaren 24rako antolatu dute. Eta, bukatzeko, apirilaren 24an Bizi Mendi Duatloia jokatu da Altsasun, Nafarroa Oinezaren alde. Izena ematea zabalik dago www.kirolprobak.com web orrian.

Ezkurdiak eta Zabaletak galdu egin zuten Altsasun

Altuna III.ak eta Martijak, aldiz, partida bikainean
Olaizola II.a eta Imaz menpean hartu zituzten

Dena dago erabakita Binakako Pilota Txapelketan, finalerdietara sailkatu ziren lau bikoteak zeintzuk diren jakina delako. Dena den, aurreko asteburuan txapelketako 13. jardunaldia jokatu zen eta gure pilotariek txanponaren bi aldeak ezagutu zituzten.

Larunbatean, betea zegoen Labriten, garaipen garrantzitsua lortu zuten Altuna III.ak eta Martijak. Bi bikoak finalerdietara sailkatuta daudenez, finalerdi aurreratu baten kutsua zuen partidak. Tentsioa handia zen, eta Aimar Olaizolaren txispari esker, 8 eta 2 aurreratu ziren Asegarekoak. Baina Julien Martija agintzen hasi zen, eta Etxeberrikoari esker bederatzina berdindu zuten Aspekoeak. Eta Jokin Altuna ikusgarri bati esker, aldea ateratzen hasi ziren eta, azkenean 13 eta 22 irabazita, finalerdietarako animo dosi garrantzitsua lortu zuten Etxeberrikoak eta Amezketaoak.

Bestalde, Altsasun, Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaleta aurreratu ziren hasieran, (2 eta 6, 7 eta 10). Zabaletak atzean agintzen zuen eta Ezkurdiak errematean fin zebilen. Baina Zabaleta akatsak egiten hasi zen, eta atzean Larunbe Zabaletari gailentzen hasi zitzaion. Bengoetxea VI.a ere berpiztu zen, eta Asegarekoak hamarna berdintzea lortu zuten eta, gutxinaka, aldea ateratzen hasi ziren. Horri sakandarren akatsak gehituta, azkenean 22 eta 18 irabazi zuten.

Gauzak horrela, Elezkano II.a-Rezustak 11 puntu dituzte, Altuna III.a-Martijak 9 puntu, Olaizola II.a-Imazek eta Ezkurdiak-Zabaletak zazpina puntu, Laso-Albisuk eta Urrutikoetxea-Galarzak bosna puntu eta Bengoetxea-Larunbek eta Irribarria-Merino II.ak launa puntu.

Sakandarren asteburuko partidak

Binakako ligaxkako azken jardunaldia jokatu da asteburuan. Ezkurdiak eta Zabaletak Laso eta Albisu izango dituzte aurkari larunbatean Labriten. Aldiz, igandean jokatu dute Altuna III.ak eta Martijak, Eibarko Astelenan, Irribarriaren eta Merino II.aren kontra. Ez dago ezer jokoan, baina txapelketaren erritmoari eutsi eta tentsioa mantentzeko, galtzea gustuko ez dutelako, eta profesional handiak direlako, kantxan dena ematera aterako dira pilotariak.

Promesak: Bakaikoak eta Etchegoinek ez zuten jokatu

Promesen edo 2. mailako Binakakoan, 7. eta azken jardunaldia jokatu zen asteburuan. Joanes Bakaikoa eta Etchegoien Gorka eta Salaverriren kontra jokatzekoak ziren ostiralean Hendaian. Baina lesioak tarteko, eta ordezkorik ez zegoenez, partida ez zen jokatu. Gauzak horrela, Agirre-Iturriaga, Etcheberria-Jaunarena, Peña II.a-Erasun eta Ugalde-Erostarbe sailkatu dira finalerdietarako.



Irurtzun taldeko txapeldunordeak, Migel Beraza Irurtzun taldeko delegatuarekin. UTZITAKOA

Irurtzunek ezin izan zuen EHko txapela lortu

PILOTA Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionaleko finalean, Azpeitiko Zazpi Iturri klubak jokoan zeuden hiru partidetatik bi irabazi zizkion Irurtzuni eta Euskal Herriko txapela jantzi zuen. Irurtzun da txapelketako txapeldunorde handia

Irurtzunek eta Azpeitiko Zazpi Iturri Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionaleko finala jokatu zuten igandean, Beotibarren. 600 pilota zale bildu ziren eta internet bidezko zuzeneko emanaldian partidak mundu guztiko 23.000 konexio izan zituen.

Lau terdiko lehian, Alberto Ongay satrustegiarrak domina-

tu zuen eta Zazpi Iturriko Zubiriari 18 eta 7 irabazi zion. Buruz burukoan, Irurtzuno Olano 10 eta 6 aurreratu zen, baina Egigurenek buelta eman zion partidari eta, sekulako partzialari esker 11 eta 18 irabazi zuen. Hortaz, bi taldeak bana berdinduta zeuden eta binakako partidak erabaki zuen guztia. Olazabalek eta Iosu Bergerak

ordezkatu zuten Irurtzun, baina finago ibili ziren Zazpi Iturrikoak. Aizpuruk atzean dominatu zuen eta Labakak, aurrean, ongi aprobetxatu zituen izan zituen aukerak. Horrela, 12 eta 22 irabazita, Euskal Herriko klub arteko txapela Azpeitira joan zen. Irurtzunek ere txapelketa handia egin du eta txapeldunorde handia da, meritu osoz.

Lizarteren aurkezpena

TXIRRINDULARITZA

Afizionatuen mailako Lizartek larunbatean egin zuen aurkezpena. 23 txirrindulari izanen ditu Lizartek, eta tartean dago Asier Ormazabal ziordiarra. Aurten 23 urtez azpiko Giroan debutatuko du Jorge Orozek zuzentzen duen taldeak. "Gure helburua pertsonak dira. Eurek aukeratzen duten biderako prestatu nahi ditugu" dio Orozek.



Etxarri lehena bere multzoan

FUTBOLA Nafarroako 2. mailako jubenilen mailako lehen multzoko txapelduna da Etxarri (46 puntu), ligako lehen fasea despeditzeko jardunaldi baten faltan. Altsasu 4.a da (35 puntu) eta Lagun Artea 6.a (28 puntu). Etxarrik San Jorge hartuko du igandean, 11:30ean eta Lagun Arteak Berriozar, larunbatean, 12:30ean. Altsasuk atsedean jardunaldia du.



ETXARRI ARANATZ FUTBOL TALDEA

FUTBOLA Sakanako Futbol Topaketak apirilean itzuliko dira

Sakanako Mankomunitateak, Sakanako futbol taldeen lagun-tzarekin antolatutako Sakanako Futbol Topaketek atsedean hartuko dute apirilera arte. Benjaminen mailan, igandean 6. jardunaldia jokatu zen Etxarri Aranatz eta, aldiz, kimuen mailan 11. jardunaldia erabaki zen igandean Urdiainen eta Altsasun. Benjaminen hurrengo jardunaldia apirilaren 8an jokatu da, Ziordian, eta kimue-na egun berean, apirilaren 8an, Lakuntzan.

Sakanako Futbol Topaketen helburua txikienei futbol partidetan aritzeko baliabideak ematea da, baina lehiakortasunik gabe. Ez da sailkapenik egiten.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagun Artea – Doneztebe	6-1
Etxarri Aranatz – Lagunak	2-1

SAILKAPENA	
1. Infanzones	38
12. Lagun Artea	21
13. Etxarri Aranatz	16

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
16:30	San Andres – Etxarri <i>Merkatondoa</i>
IGANDEAN	
16:00	Lagunak – Lagun Artea <i>Barañain</i>

Etxarrik garaipen ederra lortu zuen Lagunak liderraren kontra. Javik eta Alainez sartu zituzten golak eta Gorriek oso ongi zaindu zuen atea. Eta Lagun Arteak denboraldiko partidarik onena jokatu zuen Donezteberen kontra. Burillo, Unai, Davila, Estanga, Ander eta Eneko izan ziren golegileak.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Gazte Berriak – Altsasu	0-2

SAILKAPENA	
1. Pamplona B	33
6. Altsasu	29

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
17:00	Lekun – Altsasu <i>Lekunberrin</i>

Altsasuk eta Pamplona liderrak partida oso polita eskaini zuten Dantzalekun. Pamplona aurreratu zen, baina Josebak eta Patxik hiru puntuak Altsasuri eman zizkieten.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Altsasu – Burladés	3-0

SAILKAPENA	
1. Berriozar	55
13. Altsasu	14

LARUNBATEAN	
16:00	Berriozar – Altsasu <i>Berriozar</i>

Altsasuko emakumeek partida bikaina jokatu zuten larunbatean eta 3 eta 0 hartu zuten menpean Burladés. Bihar Berriozar liderra izango dute aurkari.

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Zaldia – Unziti	1-1

SAILKAPENA	
1. Unziti	41
4. Zaldia	25

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
Zehaztu gabe Agiri – Zaldia	
Liderraren kontra berdindu zuen Zaldia.	



CBASK Altsasuk bihar CBSA El Navarricoren kontra partida erabakigarria du.

CBASK-en partida erabakigarria bihar Altsasun

SASKIBALOA CBASK 1. Senior Autonomikoko mailan liderra da eta play-offetarako sailkatzeko borrokan dago

Senior mailako gizonetako 1. Senior Autonomikoko mailan, gauzak oso ongi doazkio CBASK taldeari. Altsasuarrek liderrak dira, nahiz eta aurreko asteburuan Larraona B taldearen kontra jokatu beharreko partida atzeratu, Altsasuko inauteriak zirela eta. Partida hau apirilaren 18an jokatu da, 20:15ean, Iruñean. Nolanahi ere, lidergoari eusten dio CBASK-ek (27+3), Liceo Monjardin bigarrenarekin puntutara berdinduta (27-1). CB Valle de Egües da hirugarrena (26+3) eta CBSA El Navarrico laugarrena (24-1).

Lehen postuetan dagoen alde oso txikia da, eta ligako lehen fase hau despeditzeko geratzen diren partidetan fin ibiltzea, ez dago besterik. Izan ere, CBASK-ek igoera play-offetarako sailkatu nahi du, eta horretarako puntuak pilatzen jarraitu beharra dago. Bihar, larunbatean, 16:45ean, CBASKek txapelketan laugarrena den CBSA El Navarrico taldea hartuko du. Ez dago esaterik partida erabakiorra dela eta altsasuarrek euren zaileen babesa gogoz eskertuko dutela. Ea play-off postuetan jarraitzen duten.

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnaren eta Aspil Vidalen derbia

Bihar, larunbatean, 18:30ean, Areta Futboleko Ohorezko Mailako bi talde nafarren arteko derbia jokatu da Tuteran, 18:30ean. Egun, Movistar Inter da liderra sailkapenean (56 puntu), Osasuna Magna 4.a da (43 puntu) eta Aspil Vidal Ribera Navarra 9.a (27 puntu).

Europako Txapelketagatik ia hilabeteko geldialdiaren ondoren,

aurreko asteburuan itzuli zen Ohorezko Mailako liga. Osasuna Magnak Cartagena taldea hartu zuen Anaitasunan, eta berdeak konturatu orduko, 3 gol sartu zituzten murtziarrek. Azkenean, 2 eta 5 irabazi zuen Cartagenak. Imanol Arregi entrenatzaileak onartu zuen "penagarri" aritu zirela eta Cartagenak "meritu osoz" irabazi zuela.

Erriberako taldearen kontrako derbirako jarrera aldatu eta partida ona egitea, hori da Irurtzungo taldearen asmoa.



BASKET NAVARRA CLUB

BNC Irurtzunen

SASKIBALOA Asteartean Basket Navarra Club taldeko kide batzuk Irurtzungo kiroldagian izan ziren, Irurtzungo Saskibalo Taldeko txikienekin eta helduenekin entrenamendu saioak egiten eta harremana sakontzen. Basket Navarra Clubekoek Twitterren azaldu dutenez, Irurtzunen saskibalo etorkizuna, egon, badago.



Unai, Eneko (bertsotari) eta Idoia, Sakana Zirt bertsolari taldea Altsasuko gaztetxean.

Bardoak lehiaketa Sakandarrik gabe

Nafarroako taldekako bertso ekimenean, Bardoak 2018an, parte hartzen duten bi taldeak aurreneko fasean gelditu dira. Hala ere, bertsolari gazteei plazak eman eta eskarmentua pilatzen laguntzeko aukera ederra izan da

SAKANA

Bardoak 2018, Nafarroako taldekako bertso ekimena 16 talderekin eta 113 parte-hartzaileekin abiatu zen otsailaren 9an. Haien artean ibarreko bi talde zeuden: Sakana Zirt eta Sakana Zart taldeak, bederatzi bertsolari osatuta. Aurrenekoan Idoia Granizo Uribarrena, Eneko Lazkoz Martinez eta Unai Artieda Estanga bertsolariak zeuden. Bigarren taldean, berriz, Josema Leitza Razkin, Joseba Andoni Beltza Bengoetxea, Ekain Alegre Gil eta Saats Karasatorre Martinez bertsolariak.

Talde bakoitzak bi bertso saiotan parte hartzearekin batera, beste multzoetako saioetan epaile izan dira. Bi talde sakandarrek bi saioetako batean puntua eskuratu dute, baina hori ez da nahikoa izan bigarren fasera pasatzeko.

Helburuak

Sakana Zirtetik eta Sakana Zartetik lehiaketan aurrera egitea lortu

ez badute ere, txapelketaren beraren helburuak lortu dituzte: "bertso-eskoletatik abiatuta, bertso-eskolen sarea eta bertsozaleasuna indartzea". Ekimenaren helburu nagusia "bertsolari eta bertsozaleen harrobia berritzea da, bertsolari berriei plazak eskainiz eta bertsolari eskarmentudunekin kantatzeko aukera emanez". Aldi berean, "bertsolarietaz gozatzeko aukera berritzailea eskaini" nahi izan du ekimenak.

Beraz, bertso eskolan eta bakarka egindako lana jendarean emateko aukera izan dute gure bertsolari gazteek. Txapelketa baten dinamika barrutik ezagutzeko aukerarekin batera.

**SAKANA ZIRT
TALDEAK ALTSASUKO
GAZTETXEAN JOKOAN
ZEGOEN PUNTUA
ESKURATU ZUEN**

Altsasun

Sakana Zirt izan zen lehian sartzen aurrena eta ostiralean Altsasuko gaztetxean jokatuak saioarekin despiditu zuen bere parte hartzea. Artieda, Granizo eta Lazkoz hiruko sakandarrak Barañaingo Patioko banda taldeko Mikel Lasarte Zia, Ainara Ieregi Aranburu, Sarai Robles Vitas, Enma Murillo San Martin, Ainhoa Sabuki Arenaza, Amaia Lasheras Zapata, Zuhara Zaratiegi Lopez, Idurre Villanueva del Burgo eta Beñat Astiz Isasirekin neurtu ziren.

Haiek entzutera Altsasuko gaztetxean adin guztietako 80 bat bertsozale elkartu ziren. Sakandarren eskarmentu handiagoa oholtza gainean agerian gelditu zen. Eta hala jaso zuten bi epaileek eta publikoan epaile ari ziren ikusleek ere. Beraz, puntua ibarrean gelditu zen. Bardo kontuak despidituta, bertsolari sakandarrek bertso eskolan segituko dute errimaren artea lantzen.



Orritz dantza taldeko kideak. UTZITAKOA

Amaiurrek eta Orritzek dantza jaialdia eskainiko dute

Larunbatean, 18:00etan, Irurtzongo frontoian. Ordu erdi lehenago dantzariak herrian barna kalejira egingen dute

IRURTZUN

Azaroaren 25ekoa, udazkeneko dantza jaialdia izan behar zena, arazo bategatik bertan behera gelditu zen. Bi dantza talde parte-hartzaileek hala ere hura ospatzeko asmoari eutsi zioten eta negu betean eskainiko dute dantza erakustaldia Iruñeko Amaiur dantza taldeak eta Irurtzongo Orritz dantza taldeak. Bi taldeak "aspaldi" elkar eza gutzen dute eta behin baino gehiagotan aritu dira elkarlanean.

Irurtzunen antolatzen diren dantza jaialdietan ohikoa denez, emanaldiaren aurretik dantzariak herrian barna kalejira egingen dute. Horrela, irurtzundarrak dantza saiora erakarri nahi dituzte.

Jaialdia

Bai Amaiurreko bai Orritzeko kideek Euskal Herriko dantzen

erakustaldia eskainiko dute oholtzan. Batzuk eta besteak txandakatuz joanen dira jendarean. Orritzeko kideek batez ere Nafarroako dantzak dantatzeko dituzte. Amaiurrekoek, berriz, Gipuzkoa, Bizkaia eta Zuberoa eta Nafarroako dantzak eskainiko dituzte. Emanaldi "osatua eta anitza" prestatu dutela jakinarazi dute. Dantza jaialdiak bigarren zatia ere izanen du, bi taldeetako kideen ondorengo afaria eta parranda.

Orritz dantza taldea 25 bat dantzari osatzen dute gaur egun. Haiek eta musikariak, biharko emanaldirako 55 pertsonako koadrila bilduko da. Atakondoa eskola publikoko gimnasioan entseatzen dute, ostiraleroko, 21:30ean. Taldekideek beso-zabalik hartuko dute dantzatze gogoa duen edozein pertsona, entsegu egunean gerturatzea besterik ez du egin behar.

Haur eta gazte, komiki tailer banaren hartzaile

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bi komiki lantegi prestatu ditu. Aurrena DBHko ikasleei zuzendutakoa da eta martxoaren 9an izanen da, ostiralean, 18:00etan, Etxarri Aranazko liburutegian. Izena eman nahi duenak bibliotx@cfnavarra.es e-postara bidali beharko du mezua. Bigarren komiki ikastaroan, berriz, Lehen

Hezkuntzako 3. eta 6. maila bitartean ari diren ikasleek eman dezakete izena. Saioa martxoaren 16an izanen da, ostiralean, 18:00etan, Urdiaingo liburutegian. Izena eman nahi duenak urdiainlib@cederna.es helbide elektronikora bidali beharko du mezua.

Bizitza Dario izeneko komiki lantegi horiek Iñaki Martiarena Otxotorena, Mattin, komikilari donostiarra emanen ditu. Martiarena prentsako kolaboratzailea eta liburu ilustratzailea da.



Margolariak egindako Juana Galarzaren eta Martin Miguel Goicoechearen erretratuak. ARTE EDERRETAKO MUSEOA

Goyaren altsasuarren kuadroak Bilbon ikusgai

Martin Miguel de Goicoechea eta Juana Galarza de Goicoechea senar-emazteen erretratuak dira. Haien alaba Gumersinda margolariaren seme Francisco Javierrekin ezkondu zen. Bilboko Arte Ederretako museoan maiatzaren 18ra arte ikusgai dago

ALTSASU

Goya eta gorte ilustratua erausketa zabaldu zuen larunbatean, maiatzaren 18ra arte ikusgai izanen dena. Prado Museo Nazionalak, "la Caixa" Banku Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoak elkarlanean antolatutako erakusketa da ikusgai dagoena. 96 artelan biltzen ditu, baita dokumentazioa eta dekorazio-arteak ere. Goyaren lan testu inguruan jartzeko, haren lanekin batera, XVIII. mendeko beste margolari esanguratsu batzuen lanek osatzen dute erakusketa.

Pintorearen hainbat garaietako lanak ikus daitezke erakusketan eta haiek sei ataletan banatu dituzte: Zaragoza, Madril, gorte ilustratua, adiskidetasuna eta arrakasta, fintasun femeninoa XVIII. mendean eta euskal herriararen eta nafarren erretratuak. Azken horien artean daude ikusgai Francisco Goya pintoreak 1810ean margotu zituen Martin Miguel de Goicoechearen

(1755-10-27 / 1825-06-30) eta Juana Galarza de Goicoechearen koadroak, mihise gaineko olioak.

Juana nafarra eta merkatarien alaba zen. Madrilen ezkondu zen 1775. urtean, Martinekin. Oihala, parpaila eta bisuteria denda bat zuten Madrilgo erdiguinean, eta bere erretratuak dendaren iragarki bat ematen du; izan ere, zeta urdin apartekoa oso ederra da, eta garai hartako modako parpailadun idunekoa oso ikusgarria. Haren koadroan, beheko angeluan, eskuinaldean, sinatua eta datatua, kolore beltzeko pigmentuz: Juana Galarza andrea, Goyak eginga. 1810. Margolanak 82 x 59 cm neurria du.

BIKOTEAREN BI ERRETRATU HORIEZ APARTE FAMILIAREN ZAZPI MINIATURA ERE MARGOTU ZITUEN

Nafarroako merkataria oparoak, gainera, kargu garrantzitsuak bete zituen San Carlosko Bankuan eta Filipinetako Errege Konpainian. Goyak neurritasunez irudikatu zuen, beltzez jantzita eta lanean murgilduta. Bere figurak Errenazimentuko erretratuaren duintasun soila hartzen du, eta margoaren errealdismoa, ordea, Erromantizismoko estetikaren bidean dago. Beheko angeluan, eskuinaldean, sinatua eta datatua, kolore berdetsuko pigmentuz: Martin de Goicoechea jauna, Goyak eginga 1810. Emaztearen koadroaren tamaina bera du horrek ere.

Koadro gehiago

Gumersinda, bikotearen bigarren alaba, Goyaren seme Javierrekin ezkondu zen, Madrilen, 1805ean. Pintoreak bere semea eta familia politikaren arteko harreman ona sendotzeko erretratu sail bat egin zuen, kobrezko lamina borobiletan, zazpi miniatura dira. + www.guaixe.eus

Arakilgo antzerki tailerra beste urte batez martxan

Beste urte batez antzerki zale-tasuna duten arakildarrek hura ibarreko tailerrean garatzeko aukera izanen dute. Tailerra Jon Barbarin Lisarri aktoreak zuzentzen du. Asteartero, 20:00etan, Ihabarko kontzejuetxean elkartzen da taldea eta hala egingen dute hurrengo lau hilabeteetan.

Arakilgo Udaleko Kultura Zerbitzua da tailerra antolatu duena eta jakinarazi duenez, interesa duen jendeak arakilkultura@gmail.com posta elektronikoko helbidean eman dezake izena; Arakilen erroldatuta dauden pertsonen 70 euro pagatu behar dituzte eta ibarrean erroldatuta ez daudenak 90.

Salazarren Iruñeko eskultura ordaintzeko diru bilketa hasi da

Sanfermines 78 gogoan (SF78) herri ekimenak aste honetan abiarazi du Internet bidezko diru bilketa edo crowdfunding kanpaina. 1978ko sanferminetako gertaerak oroitaraziko dituen monumentu bat sortu eta jartzeko gastuak ordaintzeko da bildu nahi duten dirua. <http://goteo.cc/gogoan> web orriaren bidez 40 egunetan gutxienez 22.896 euro jaso nahi dituzte. Nahiz eta lortu nahi luketen diru kopuru egokia 33.534 izan.

Gertakaria gogoraraziko duen lana Dora Salazar eskultoreak egingen du. Burdina forjatuan egindako bi metro inguruko figura bat, Ermuko Urkobase galdategian landuko dena.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Herri bat egingo dugu kartzelarik gabekoa

Askatasuna, Santxo, zeruak gizon eta emakumeei eman dien dohairik preziatuena da. Lurrak eta itsasoak gordetzen dituzten altxorrek ezin dira berarekin konparatu.

Askatasunagatik bizitza arriskatu daiteke eta arriskatu beharra dago beharrezkoa balitz. Aitzitik, preso egotea gizon eta emakumeei gertatu ahal zaien gaitzik handiena da.

Pinotxetex laborategian hazitako bakteria batez eraildako Txileko poetak bere kantu etsituan idatzi zuen bezala, "bizi naizen gau honetan zuen oroimena uren gainetik azaleratu da, ibaiak itsasoari bere aiene tematia lotu dion unean".

Ayalde zaharrak, Antton Valverde kantariaren aitak, haxe galdetzen zion bere buruari: "Euskal sustraia! Herri honen mamia non dago?" Eta jarraian... "Haxe duk nire ustea: ez kromletx, ez dolmenetan, ez harri koxkor zaharretan... Itsaso-bazter etxetan, ta mendi baserrietan, oraindik bizirik bainan huts sakon ilunpetan estaltzera dihoakigun hizkuntza gurean."

Elkorriko errekaen ondoan, Aranzako Erkidegoaren lurretan, olagizon-emakumeak bizi izan ziren, eta beren mailuen tirikita-utauki-tauki doinua ozen entzuten zen Sakana osoan, Jorge de Oteiza jaio baino askoz ere lehenago. Beren herrian libre, mendietan aske, otea bezala, botoi horiaz bete.

Gure hizkuntzan dago, bai, gure herriaren funtsa. Baina era berean, askatasunari zor diogun maitasunean ere; bera baita gure herriaren ezaugarri gorena. Ez dugu, ez, edozein herririk nahi; ez dugu, ez, edozein bihotzik nahi. Bihotz askeak, herri askeak nahi ditugu. Legearen aurrean denok berdina garela sinestarazi nahi digute, baina Eduardo Galdeanok erakutsi eta nafar antzezleek gogoratu diguten bezala, zeruko legean baliteke, baina lurrekoan ustezko berdintasun hori desberdina da beti batzuentzat eta besteentzat.

A zer pena...! Betiko gerrak, betiko tiranoak, betiko kateak... Non ote dira Aralarko Elkorriko olagizon eta emakumeak? Etorriko ote dira berriro kateak apurtzera? Kartzelako ateak beren mailuez irekitzera?

Zatozte Altsasukoen alde...!!

Dantza eskolaren 25 urte errepasatzeko aukera

Etorkizuna dantza eskolak 25 urte bete ditu aurten. Bere ibilbidearen errepasoa egiteko erakusketa prestatu du. Iortia kultur gunean martxoaren 11ra arte dago ikusgai, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara

SAKANA

Etorkizuna dantza taldeak bere mende laurdeneko ibilbidea errepasatzen duen erakusketa prestatu du. 300 bat argazki, 12 inguru jantzi, bai haienak bai Aitzindari dantza taldearenak izan zirenak, eta saioetako bideoek osatzen dute erakusketa.

Guraso talde bat izan zen 1993an Altsasun dantza eskola sustatu zuena. "Hasierako helburua helduen dantza taldea dantzariz hornitzea zen. Gero, ez dakigu zergatik, bete ez zena" azaldu digu Iñaki Agirrek, gaur egun dantza eskolako irakasleetako bat, Ane Zelaiarekin batera. Bera dantza eskolako ikaslea



Erakusketa prestatzeko lanean herenegun.

Izar izan nahi duenaren pasadizoak Lakuntzan

Nisune, edo Josune Velez de Mendizabal aktorea Gertruren larrian sartuko da. Pertsonaia honek dantzari edo nazioarteko kantari izan nahi zuen, kantariak eta abeslariak bidaiatu egin ohi dutelako. Kanpotik bueltatzen zen bizilaguna bezala... Baina bera, urrunen herrira joan da. Gertru denbora gehiegi egon da zain eta, azkenik, bai, bere burutik haratago doan bidaia egiten du oraingoan.

Nisunek berak sortutako obra martxoan mustu zuen. Gertru beti egon den tokia utzi eta ateratzea, bidaiatzeko erabakia hartzea zerk bultzatuko duen jakin nahi duenak Lakuntzako kultur etxetik pasa beharko du. Bide batez, orain arteko egurrezko aulkien ordez, plastikozkoak mustutzeko aukera izanen du.

Josune Velez de Mendizabal aktoreak *Oraingoan bai* antzez-lana larunbatean, 18:30ean, jokatuko du, Lakuntzako kultur etxean.

Hiru antzerki emanaldi bakarrean ikusteko aukera

Pez Limbo taldeak "Pulgas" mikro antzerkia saioa eskainiko du larunbatean, 19:30ean, Altsasuko Iortian

ALTSASU

Ez da hasi eta buka egiten den antzezlan bat. Hiru mikro antzerki lanez osatutako obra da *Pulgas*. Eta hirurek euren artean elkarriketa egiten dute. Pez Limbok hiru ezohiko gertaera ohiko lekuetara ekarri eta komedia eta drama sozialaren arteko istorio sinestezinak sorraraziko ditu. Gainera, publikoak antzerkia gertutik bizitzeko aukera izanen du.

Aurreneko piezan, *¿Espinazo o callos?*, Raul Caminok harakina egiten du eta Begoña Martin Treviño bezeroa izanen da, bere konfiantzazko harakina ezohiko zerbait eskatuko diona, jendaurrean. *Mama Gallina* pieza Silvia Martinek eta Edu Hernandok jokatuko dute. Aurrena bere semearekin lotura handia duen ama da; bigarrena, berriz, toki okerrean



Pez Limboren antzerkia. PEZLIMBO.COM

dagoen medikua. Eta, despeditzeko, *Boxers* antzez-lana jokatuko dute Raul Caminok eta Edu Hernandok. Biak, ezustean, zeregin klandestino batean sartuak ikusiko dute euren burua, diru "erraza" lortu edo makurraraziak izateko. [+guaixe.eus](http://guaixe.eus)

izateaz aparte dantzari txikienei irakasten die.

Ikasketez

Hala ere, aurreneko irakaslea Jesus Maria Garate ordiziarra izan zen. Hasiera batean euskal dantzeekin batera klasikoa ere ematen zuten Iruñetik etorritako bi irakaslek. "Klasika ematearena, dantza teknika hobetzeko modu bat zen; bi estiloei antzekotasun handiak dituztelako", argitu digu Agirrek. Gaur egun dantza klasikoko ariketak, "neurri batean, egiten ditugu, beroketan eta. Gazteek ez dute oso gustuko. Nik, nolabait, pixka bat sartzen dut, teknika hobetzeko ona delako. Iruditzen zait gauzak nondik datozen jakin behar dutela. Jendeak ikus dezan teknika lantzen dugula ere".

Umeetatik gurasoen taldera arte, bederatzi taldeetan banatutako ehun bat ikasle ditu Etor-kizuna dantza eskolan gaur egun Arbizuko, Etxarri Aranazko, Iturmendiko, Urdiaingo, Altsasuko eta Ziordiko ikasleak daude. Etxarri Aranatzeko ere eman izan dituzte dantza eskolak, "dantzari dexente zeudelako,

baina adinen aldetik taldeak sortzea oso zaila zenez denak Altsasura etortzea erabaki zen. Horrela talde handiagoak sortzen ziren eta dantza emateko errazagoa zen".

Berritasuna

Altsasuko udal musika eta dantza eskola barruan daude, baina elkarteak bere ekimen propioa ere baduela argitu digu Agirrek. Eskolan "euskal dantzak lantzen ditugu, baina aurrerapauso txiki bat egin dugu eta beste kan- tekin koreografiak sortzen ditugu, jendeari pixka bat erakargarriagoa egiten zaiona. Sustraiak zein diren ahaztu gabe, horrekin zer gauza egin daitezkeen erakutsi nahi dugu ere. Euskal dantzatik abiatuta koreografiak egitea, alderantziz inoiz ez".

"Iruditzen zait orain dantzan segitzeko urratsa egitea errazagoa dela, orain gaztetxoek taldean daudenak, beste dantzari guztiak ezagutu dituzte, eta alderantziz. Lehen dantza eskolatik dantza taldera pasatzen ziren, inor ezagutu gabe". Dantzari gazteak ikastera kanpora joaten dira eta jarraipenerako arazoa da hori.

16 ASTE - 3 URTE
2016, 2017 eta 2018an jaiotako haurrak

Jantoki zerbitzua Ordutegi zabala

ZATOZ ESKOLA BERRIA EZAGUTZERA!
TXIRINBULO UDAL HAUR ESKOLA
ESCUELA INFANTIL MUNICIPAL TXIRINBULO

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

Aurrematrikulazioa: martxoaren 1etik 15era
Matrikulazioa: maiatzaren 21etik 2ra

ORDUTEGIA:
9:00-13:00
15:00-16:00

Alzania kalea, 24 ALTSASU 948 56 44 22 txiribulohaureskola@altsasu.net

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus



OSTIRALA 23

ALTSASU Sexugunea zabalik izanen da.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ARBIZU Poz aldrebesa liburua aurkeztuko du Juanjo Olsagarrek.
19:00etan, udal liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU Itsasoaren hotsa ipuin kontakizuna egingen du Birjiñe Albirak.
19:00etan, lortia kultur gunean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

URDIAIN Magia-poteoa Asier Kidam magoarekin.
20:30ean, tabernetan.

ALTSASU Tres anuncios en las afueras filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Esne Beltza sound systemen kontzertua.
23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 24

LAKUNTZA Mendi irteera, Zabalarrek antolatuta.
7:30ean, plazan.

ALTSASU Altsasu eta Done Bikendi Harana arteko 100 km-ko joan-etorria egingen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek.
9:30ean, San Juan plazatik.

ZIORDIA Auzolana Amarauna gune autogestionatuan.
10:00etan, Amaraunan.

IRURTZUN Amaur eta Orritz dantza taldeek jaialdia eskainiko dute.
18:00etan, frontoian.

ALTSASU Magic.
18:00etan, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Oraingoan bai antzezlan eskainiko du Josune Velezek.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Pulgas mikro antzerkia eskainiko du Pez Limbo taldeak.
19:30, lortia kultur gunean.

IGANDEA 25

IRURTZUN Imozko itzulia egingen dute Iratxo mendi taldeko kideek.
Elkartetik.

ALTSASU Mendiluzeko harrespilera 60 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
08:30ean, klubeko bajeatetik edo 09:10ean Urbasako portuan.

IRURTZUN Euskal Herriko Rifeko herri mugimenduaren batzar orokorra.
16:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Oihaneko kuadrila filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU En cuerpo y alma filmaren emanaldia.
17:30ean eta 19:40ean, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Elkarrekin edozer posible dugu, Hatortxu Rock 20ren inguruko dokumentala.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Etorkizuna dantza eskolaren 25. urteurren erakusketa.

Martxoaren 11ra arte astegunetan
18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

ALTSASU Tres anuncios en las afueras filmaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTEAZKENA 28

ALTSASU Ganbera musika kontzertua eskainiko dute Altsasuko musika eta dantza eskolako ikasleek.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 1

ALTSASU Zuek duzue giltza. Haurren hizkuntza portaeretan eragiteko bideak emanen ditu Paula Kasaresek, soziolinguista eta NUPeko irakasleak. Irekia edozein familiarentzako. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.
17:00etan, Txioka haur ikastolan.

ALTSASU C'est la vie! filma.
19:00ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu gaixoak askatu. Amnistia osoa. AEMK deitutako kontzentrazioa.
19:30ean, plazan.

ZORION AGURRAK



Gorka
Zorionak Gorka! Sarri beteko ttuzu 3 urte, eta beti bezin munitube segitzen dezu. Alkar ospatuko diau fameliyen, txokolate goixuat hartuta.



Olasagarrenen etxeko aurkezpena



Juanjo Olsagarre idazlea. ARTXIBOA

Juanjo Olsagarrek bere azken liburua Arbizun aurkeztuko du gaur. Udal liburutegian izanen da, 19:00etan. *Poz aldrebesa* (2017, Susa) liburua da idazle arbi-zuarraren azken sorkuntza. Joseba eta Axi bikotea da protagonista, nahiz eta lehena bigarrena baino gehiago den. Denbora jauzien haien arteko harremana kontatuko du idazleak. Horrek hizpidera ekarriko ditu zaintza, dolua, harremanak, gaytasuna edota euskal gatazka moduko gaiak. Eleberrian, atzera ere, Lekunberri Aranatz agertzen da.



IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROK

Sukaldaritza

ikastaroan plaza libreak, otsailak 28, martxoak 28 eta apirilak 11, 18 eta 25. 24 euro 14-30 urte. Izena emateko azken eguna otsailak 24 Intxostiapuntan.

Estresa jasaten ikastea tutoriala. Cedema Garalur, Arbuzun. Marboaren 6an, asteartea, 10:00-12:00. Bultzatzaile, PYME eta autonomoentzat. Izen-ematea 619 328 264 eta sakana. admon@cedema.es

Elikadura eta ariketa fisikoa 2. motako diabetesean. Irurtzungo udaltxean, Osoko bilkuren aretoa. Marboaren 5ean, 7an, 13an eta 14an, 17:00-19:00. Aurretik izena eman behar da 848 42 34 50 telefonora deituz 8:00etatik 15:00ak arte edo www.esceuladepacientes.navarra.es webgunean. Doan eta erdaraz dira.

OHARRAK

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Odol-emaileak. Altsasu: Otsailaren 27an eta 28an, 17:00-20:30. Marboaren 1ean, 17:00-20:30; marboaren 2an, 9:30-13:00

Etzarriko irakurle taldea. Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi-
ren, Elsa Sheelen (1969 Lur) liburuari buruz hizketatzera elkartuko da udal liburutegian martxoaren 15ean, ostegun-
ean, 19:00etan.

Otadiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguiagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguiagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pab) telefonoetara hots egin dezatela.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Eurritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giiltzak eta ibilgailuak.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Ceder-na-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner Iruñean. Landa-
rek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zabaldu argitza, ekarpenak egitera...

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta inehariek aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legegaren aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119 www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

• **Enara Birabent Aizpioleta**, otsailaren 18an Altsasun.

HERIOTZAK

• **Fernando Inacio Inacio**, olaztiarra, otsailaren 16an Altsasun.
• **Florencio Etxarri Ibañez**, otsailaren 16an Olaztin.
• **Paulino Galarza Goikoetxea**, otsailaren 16an Urdiainen.
• **Guadalupe Rico Leal**, otsailaren 17an Altsasun.
• **Jose María Saez de Muniain Arregi**, otsailaren 20an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Nabarmendu zure iragarkia
Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia
Tamaina berria.
Galdetu prezioa.

948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.
ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELA




Maria Teresa Azpilicueta Izcue

Ez zaitugu sekula ahaztuko

Etxekoak

ESKELA




Pakita Mauleon Goñi

Zinena beti hiltzen da beste zerbait izateko.

Iñakiren lagunak


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 23




Giroak egonkortzera egingo du. Zerua garbi edukiko dugu egun guztian zehar, baina nahiz eta eguzkiak zertxobait berotuko duen, hotza izango da nabari ipar haizearen ondorioz.

Larunbata, 24




Hotz handiarekin hasiko dugu eguna, baina eguzkiaren ondorioz, eguna goxatzen joango da. Baina kontuz gualdean, tenperaturak berriro jaitsiko dira eta.

Igandea, 25



Hodei batzuk iritsiko dira gureru, baina ez du prezipitaziorik botako. Bai tenperatura minimoen bai tenperatura maximoen gorakada bat nabarituko dugu.

Astelehena, 26



Goizean ez du hainbesteko hotzik egingo, gau partean tenperaturaren beherakada nabaria izango da eta elur pixka bat egiten hasiko da, asteartean jarraituz.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

40 tanatorios
IRACHE
aniversario
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Akabo ihoteak!

Sakana guztiak inauteriak eta mozorroak despeditu ditu. Sakana guztiak? Ez! Burundan bada herri bat zeinetan oraindik herri ihoteak ospatzea falta den: Bakaiku. Mozorro gose gelditu denak hortxe du aukera.

BAKAIKU

Kamarroekin, inauteria

Aurten Sakanako azken ihoteak izanen dira Bakaikuko herri ihoteak. Ohi bezala, Bakaikuko Gazte Asanbladak antolatutako ospakizuna Bakarrekotxea elkartean egingen den alubi-janarekin hasiko da, 14:30ean. Majo bazkaldu eta gero, gazteak kamarro bihurtzeko prozesua hasiko da. Arpillerako zakuak gorputzean, aurpegia estaltzeko zapi, maskara edo dena delakoak eta buruan txano edo zapi sinpleenetik abelburuen hezurdurak arte, denetarik eramanen dute.

Pertsonaia horiek kamarroak dira eta elkartearen atean 18:00ak aldera agertuko dira. Askok eta askok eskuan zigorra izanen dute. Parean suertatzen dena berotzeko. Bakarren batek suko hautsez betetako pertza eramanen du, nahi bezala zabaltzeko. Besteek kateak edota golda eramanen dute. Elkartetik, aurrena, trenbide aldera joko du ihote segizioan, etxez etxeko errondan. Errondan, han goitik, han beheitik ibili eta gero, 20:00ak aldera, suaren bueltan dantza egingen dute. Festa Reimy dj-ak 22:30etik aurrera jarritako musikarekin segituko du.



IHABAR - MAIALEN HUARTE



ITURMENDI - UTZITAKOA



HIRIBERRI - MAIALEN HUARTE



OLAZTI



ZIORDIA - UTZITAKOA



ALTSASU



ALTSASU



IHABAR - MAIALEN HUARTE



OLAZTI



ZIORDIA - UTZITAKOA



HIRIBERRI - MAIALEN HUARTE



ITURMENDI - UTZITAKOA



OLAZTI



IHABAR - MAIALEN HUARTE



HIRIBERRI - MAIDER UHARTE



ALTSASU



ZIORDIA - UTZITAKOA



ITURMENDI - UTZITAKOA



Asier Pazos Arbizu, Ordizia Rugby Taldeko jokalaria lakuntzarra. AINHOA MURIEL

"Errugbiak guztiz harrapatzen zaitu"

Ordizia Rugby Taldeko senior mailako Ampo Ordizian jokatzen du Asier Pazos lakuntzarrak, Espainiako Ohorezko Mailan. Horretaz gain, 14 urtez azpiko taldeko irakaslea da. Guztiz harrapatzen zaituen kirol honetaz aritu gara berarekin

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 Noiz hasi zinen errugbian?

Leonera joan nintzen aktibitate fisikoak eta kirol jarduerak, INEF, ikastera. Hango unibertsitateko errugbi taldean hasi nintzen eta guztiz harrapatu ninduen; ordutik ezin izan dut errugbia utzi. 5 urte eman ditut lehengo 1 nazional mailan.

2 Eta noiztik zabilza Ordizia Rugby Taldean?

Masterraren praktikak Ordizian egin nituen. Jokalariak eta entrenatzaileak ezagutu nituen eta aurten hasi naiz Ordizian jokari moduan, masterraren praktiken bitartez. Ni Ordiziako lehen taldean nabil, Ampo Ordizian. Espainiako maila gorenean lehiatzen gara, Ohorezko Maila, Es-

tatuko puntako gainontzeko taldeekin. Euskal Herriko lau talde gaude: Getxo, Gernika, Hernani eta gu. Puntan lau euskal talde egotea handia da.

3 Entrenatzailea ere bazara...

Ordizia Rugby taldeak kategoria guztiko taldeak ditu, 150-160 jokalaria izanzen gara. Arratsaldetan 14 urtez azpiko talde-

ko entrenatzailea naiz. Bestalde, Goierriko ikastetxeetan errugbia zabaltzen ari gara eta askotan klase horiek ematen ditut.

4 Nola jokatzen da errugbira?

Helburua da baloia aurkariaren areara eramatea, baina ez da hain erraza: aurreraka korrika egiten da, baina paseak atzeraka egin behar dira. Taldekideekin baloia bata besteari pasatzen ibili behar dugu, eta arerioa saiaturiko da zu gelditzen, lurrera botatzen, plakaje baten bitartez. Errugbian jokalarien segurtasuna bermatzen da eta horretarako arau pila bat bete behar dira, eta plakajeak era jakin batean egin behar dira.

Kontrako areara iristean, baloiarekin lurra zapatzen duzu eta entsaio bat irabazten duzu, 5 puntu balio duena. Eta ondoren, hankarekin jaurtiketa egin dezakezu. Baloia H atean sartzen baduzu, beste 2 puntu lortuko dituzu. Entsaioa egin duzun toki beretik egin beharko da jaurtiketa, areatik atzera eginez.

5 Kirol zaila da?

Gure herritan ez dago errugbiaren kultura, eta hasieran arraroa egiten da, baina oso erraza da. Berehala arau ia gehienak barneratzen dituzu.

6 Errespetua funtsezkoa omen da errugbian...

Errespetua ezinbestekoa da. Arbitroa autoritatea da; berari bakarrik kapitainak hitz egin ahal dio, ez protestatzeko, zenbat denbora gelditzen den galdetzeko eta halako galderak. Eta gero beste zaleekin normalean tratua ona dago. Partidua bukatuta, etxeko taldeak kanpoko taldea

jatera eta edatera gonbidatzen du, hirugarren denbora ezagun hori. Hori talde guztiok egiten dugu. Bertan partidari buruz hitz egiten dugu eta oso polita da momentu horiek bizitzea.

7 Kirol gogorra dela pentsatzen da. Horrenbesterako al da?

Ez. Kontaktua badago, baina atzetik entrenamendu asko dago eta ez da horrenbesterako. Fisikoa asko lantzen dugu, gimnasioan eta zelaian, eta entrenamendu tekniko-taktikoak baita.

8 Zer moduz doa Ampo Ordizia Ohorezko Mailako ligan?

Oso ongi, helburua play offetara sailkatzea zen eta hortxe gaude. Uste dugu xedea lortuko dugula eta saiaturiko garela helburu handiagoak lortzen.

9 Zein postutan jokatzen duzu?

Flanker, 6-7 zenbakiarekin. Aurrelari funtzioa egiten dut: baloia lortu... hortaz, kontaktu asko izaten dut. Erdian, hegalean... parte hartzen dut, zelai guztitik barna korrika. Melean sartuta nago.

10 Sakanan errugbi zaletasuna dago?

Ez dago Goierri bezalako zaletasunik, baina gero eta gehiago dago. Nik dakidala, senior mailan ni naiz lehiatzen dabilen sakandar bakarra. Gaztetxoetan, urdiaindar bat, Owen, entrenatzen dut.

11 Ikusten duzu Sakanan errugbi talde bat sortzeko aukera?

Zaila da, baina Sakanan talde bat sortzea oso polita litzateke, jokalaria onak aterako lirateke; saiaturiko gara zerbait sustatzen.



Zure irudi korporatibo berria, edozein euskarritan.

gk KOMUNIKAZIOA

948 564 275
 Foru plaza, 23-1. Altsasu
 gk@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus